



Margarita
Nafarroakoa
Heptamerona
laugarren eguna

Itzulpena: Xabier Artola Zubillaga / Itziar Diez de Ultzurrun

 BOOKTEGI



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

MARGARITA NAFARROAKOA

heptamerona

laugarren eguna

Laugarren eguneko mintzagai nagusi dugu emazteek senarrak berenganatzeko duten pazientzia bertutetsua eta egin ohi duten igurikatze luzea; eta gizonek emaztekiekiko ukan ohi duten zuhurtzia, beren etxe eta leinuen ohorea atxikitzeko.

Itzultzailea:
Xabier Artola Zubillaga

Ohargilea:
Itziar Diez de Ultzurrun Sagalà



iruñeko
komunikabideak
fundazioa

IKF



AITZINSOLASA

Oisille anderea, bere ohidura onari eutsiz, bertzeak baino anitzez goizago jaiki zen, eta, Liburu Sainduen ganean meditatzen zuela, lagunartekoen beha gelditu zen, zeinak guttika-guttika bilduz joan baitziren. Eta gizonetan alferrenek Jainkoaren hitza hartu zuten aitzakia, erranez:

«Emaztea daukat, ezin naiz hain goizik joan».

Horregatik, Hircan eta haren emazte Parlamente heldu zirenerako ongi aitzinatua zen ikasgaia. Ordea, Oisillek ederki asmatu zuen Liburuan kausitzen hitz sailduak entzuteko alfer direnak erasiatzen ditueneko pasartea; eta ez zien testua irakurtzen soilik, ezpada hainbat azalpen on eta saildu ematen zizkien, eta ez zen posible hari entzunik nardatzea. Ikasgaia finiturik, Parlamentek erran zion:

«Gaitziturik nauzu hona etortzean alferrez ibili naizelako; baina, ene hobena izan denez zuk eni hain ele ederrak egin ukanaren karia, bigatan baliatu naiz ene alferkeriaz, zeren gorputzari, pausu handiagoa eman baitiot lo gehiago eginez, eta izpirituari, zuri ele eder horiek entzunez».

Oisillek erran zion:

«Alabaina, penitentzia gisa, joan gaitezen meza entzutera eta gure Jaunari otoitz egitera, eman diezagun bere manamenduak betetzeko nahia eta modua; eta gero, mana dezala gogoko duena».

Eta hitz horiek erranik, elkartu ziren guziak elizan, eta meza entzun zuten debozio handiz; eta gero mahaira eseri ziren, non Hircanek ez zuen parada galdu bere emaztearen alferkeriaz trufatzeko. Jan ondoren, pausatzerantz erretiratu ziren beren gaia estudiantzeko; eta tenorea heldu zelarik, ohiko lekuan elkartu ziren. Oisillek galdetu zion Hircani ea nori emanen zion hitza egunari hatsarrea emateko:

«Ez balitz atzo ene emaztea hasi zelako —erran zuen—, hari emanen nioke hitza, zeren, beti pentsatu ukan badut ere munduko bertze edozein gizon baino gehiago maite ukan nauela, egun goizean erakutsi dit Jainkoa bera edo haren hitza baino gehiago ere maite nauela, ene ondoan egoteagatik utzi baitu zure ikasgai ona; hala, ezin diodanez hitza eman hemengo emaztekerik zuhurrenari, gizonon arteko zuhurrenari emanen diot, hots, Geburoni. Baina arren galdatzen diot ez ditzan nehola ere gupidets elizgizonak».

Geburonek erran zion:

«Ez zenidan halakorik galdegin beharrik, ongi gogoan nituen aipatzeko, zeren ez da luze istorio bat entzun niola enperadorearen enbaxadore Saint Vincent-eko jaunari¹, eta kontatu eginen dizuet, ez baitu ahanztea merezi».

¹ François Bonvalot, Besançon-eko Saint-Vincenteko abadea, Karlos V.aren ordezkaria izan zen Frantziako gortean, 1539tik 1541era. (I. O.)

HOGETA HAMAIKAGARREN ISTORIOA

Kordelieren monasterio bat fraideak barnean zirela erre zuten, damatxo batekin amorostua zen haietarik batek ukan zuen krudelkeria betiereko oroitua izan zedin.

Bazen, Austriako Maximiliano enperadorearen lurraldean², biziki estimatua zen kordelieren komentu bat, eta handik hurbil zuen etxea zaldun batek. Eta halako adiskidetasuna zuen hango elizgizonekin, ezen ez baitzen, haien ongi, baruraldi eta diziplinetan parte hartzeagatik, emanen ez zien ondasunik. Eta, bertzeak bertze, bazen han kordelier handi eta eder bat, zaldunak kofesortzat hartua zuena, eta etxe hartan zaldunak berak bezalaxe manatzeko ahala zuena. Kordelier hura, ikusiz zaldunaren emaztea ezin ederragoa eta zuhurragoa zela, hain azkarki amorostu zen hartaz, ezen galdu egin baitzuen jan-edanerako gogoia, eta orobat berezko arrazoimena ere. Eta, egun batean, bere eginkizuna betetzera deliberatu eta joan zen bakarrik zaldunaren etxerat, eta, han ez zela ikusirik, galdegin zion emazteari ea norat joana zen. Hark erran zion lur batzuk ikusterat joana zela eta bizpahiru egunez izanen zela kanpoan, baina, zerbait baldin bazuen, igorriko zuela gizon bat espresuki harengana. Fraideak ezetz erran zion, eta etxean harat-honat hasi zen, nola bere baitan munta handiko zerbait duen gizon bat. Eta, ganberatik lekutu zelarik, erran zion emazteak neskatoetarik bati —biga baizik ez zituen—:

—Hoa aita on horrengana ea zer duen, iduri baitzait kontent ez dagoen gizon baten begitarte duela.

Ganberazaina korralera ilki zen eta galdegin zion ea zerbait behar zuen; hark baietz erran zion, eta, zoko batera eramanez, mahuka barnean zeukan sastakai bat hartu eta zintzurretik sartu zion. Fraideak hori egin orduko, heldu zen korralera sehi bat, zaldiz, etxalde batera errentaren eske joan eta itzulian zetorrena. Oina lurrean jarri bezain fite kordelierra agurtu zuen, eta hark, besarkatuz, sastakaia lepoan sartu zion gibeletik eta gazteluko atea hetsi zuen berehala. Damak, ikusiz neskatoa ez zetorrela, eta harriturik fraidearekin hain luzaz zegoelako, erran zion bertze ganberazainari:

—Hoa ikusterat zer dela-eta ez den heldu hire lankidea.

Jalgi zen ganberazaina, eta, aita onak hura ikusi bezain sarri, zoko batera bulkatu eta lagunarekin egina zuen bezala egin zuen harekin ere. Eta etxean bakarrik zela ikusi zuelarik, damarengana joan eta erran zion ezen denbora luze zela beraz amorostua zela, eta heldua zela tenorea obedi ziezaion. Damak, ez baitzuen sekulan halako susmorik ukan, erran zion:

—Ene aita, iduri zait ene borondatea hain damugarria balitz, zuhaur zinatekeela lehena ni harrikatzen.

Fraideak erran zion:

—Ilki zait ez korralera, eta ikusiko duzu zer egin dudana.

² Maximiliano I.a, Karlos V.aren aitona, Germaniako Erromatar Inperio Santuaren enperadorea izan zen 1493tik 1519ra arte. (I. O.)

Dama, ikusi zituelarik bi ganberazainak eta sehia hilik, hain jarri zen izu eta ikara, ezen estatua bat bezala gelditu baitzen, hitzik gabe. Orduan, gaizto hark, ez baitzebilen ordubeteko gozamen hutsaren gibeletik, ez zuen behartu nahi ukan, eta erran zion:

—Ez beldurrik ukan, anderea, munduan gehien maite zaituen gizonaren eskuetan zaude.

Eta hori erranik, bere abitu handia erauntzi zuen, eta haren azpian zeraman ttipiago bat presentatu zion damari, erranez ezen, hartzen ez baldin bazuen, aitzinean hilik zituen haien lekurat igorriko zuela bera ere.

Damak, areago hilik bizirik baino, obedituko ziolako alegia egitea deliberatu zuen, bere bizia salbatzeko ez ezik, senarra itzuliko zela espero zuen arte denbora irabazteko ere. Eta, kordelierraren manuz, hasi zen burukoa kentzen ahal zuen baratxeen, eta adatsa libre gelditu zitzaielarik, kordelierrak ez zion begiratu haren ederrari, ezpada presaka moztu zion. Hori egin ondoren, erauntzarazi egin zuen atorra-has gelditu arte, eta bere abitu ttipia jauntzi zion, berak ohikoa zuena gibelerat hartuz; eta ahalik eta lasterrena jalgi zen handik, berekin harturik hain luzaz desira ukan zuen kordelier ttipia. Baina Jainkoak, zeina urrikari baitzaio atsekabeen denari, gaizo emazte haren negar xortei behatu zien, halako maneran, ezen senarra, bere egitekoak uste baino lehen bururaturik, emaztea zihoan ber bidetik itzularazi baitzuen etxerat. Baina kordelierrak, urrunetik ikusi baitzuen, erran zion damari:

—Hara zure senarra, hor dator! Badakit begiratzen badiozu ene eskuetatik libratu nahiko zaituela; horregatik, segi ene aitzinetik eta ez itzuli burua haren alderat nehola ere, zeren, keinu bakar bat egiten baduzu, fiteago ukanen baitut ene sastakaia zure zintzurrean berak zu ene eskuetatik libratu baino.

Hori erraten ari zela, hurrandu zitzaion zalduna eta galdegin zion nondik heldu zen; eta hark erran zion:

—Zure etxetik, han utzi dut anderea onik, beha duzu.

Iragan zen zalduna emaztea han zenik ohartu gabe, baina harekin zen sehi bat, zeina kordelierraren lagun zen anaia Jehanekin mintzatzen baitzen beti, deika hasi zitzaion nagusi andereari, anaia Jehan zelakoan. Emazteki gaixoak, ez baitzen menturatzen senarra zen alderat begiratzen, ez zion hitzik ere egin; baina sehiak bidea gurutzatu zuen haren begitarte ikusteagatik, eta damak, hitzik ere egin gabe, keinua egin zion begiez, zeinak negarrez beterik baitzituen. Sehia nagusi jaunarengana joan eta erran zion:

—Jauna, bidez bertzaldera joan naiz eta ikertu dut kordelierrarekin doana, eta ez da anaia Jehan nehola ere, ezpada zure emaztearen eite handia duen bat, eta urrikarizko behako bat egin dit negarrez bete begiez.

Zaldunak erran zion ametsetan ariko zela, eta ez zion batere kasurik eman. Baina sehiak, bere hartan tematuz, otoiztu zion haien gibeletik joaten utz zezan ea pentsatzen zuena ote zen ikusterat, eta iguriki zezala bidean bera itzuli arte. Zalduna akort izan zen, eta beha gelditu zen sehiak zer berri ekarriko. Baina kordelierrak sentitu zuenean sehia gibeletik zetorrela anaia Jehani deika, emazteak ezagutu ote zuen sumatuz, aldean zeukan makila ferratu bat hartu eta halako ukaldia eman zion saihetsean, ezen zalditik lurrera aurtiki baitzuen, eta, berehala, haren gainera jauzi egin eta zintzurra egin zion. Zalduna, zeinak urrunetik ikusi baitzuen sehia behaztopa egiten, pentsatuz istripuren bat ukan zuela, lasterka joan zitzaion zutitzen laguntzerat. Eta kordelierrak, zalduna ikusi bezain sarri, ukaldia eman zion bere makila ferratuaz, sehiarekin egin bezala; lurrera aurtiki zuen eta haren gainera egin zuen jauzi. Baina

zaldunak, azkarra eta puxanta baitzen, halako moduan inguratu zuen kordelierra besoez, non ez baitzion paradarik eman min egiteko, eta sastakaia eskuetatik askarazi zion; berehala hartu zuen emazteak hura eta eskuratu zion senarrari, eta hark indar guziz atxiki zuen kordelierra txanotik. Eta hainbertze sastako eman zizkion, ezen fraideak barkamena eskatu zion eta aitortu zuen bere gaiztakeria. Zaldunak ez zuen hil nahi ukan, eta galdatu zion emazteari etxera joan zedin jendearen eta gizona eramateko orga baten xerka, eta hala egin zuen hark: abitua erauntzi eta han joan zen lasterka, atorra-has eta ilea arras mozturik, etxeraino. Berehala jin ziren jende guziak, nagusia laguntzera atzemana zuen otsoa ekartzen; bidean kausitu zuten, eta gatibu hartu, estekatu eta zaldunaren etxerat eraman zuten. Hark Flandriako enperadorearengana igorri zuen gero, auzitara, eta han aitortu zuen bere nahikari makurra. Eta jakin zen, haren aitopenaz eta ikuskariak lekuan berean egin frogantzen bidez, ezen monasterio hartara hainbat eta hainbat aitoren alaba eta bertze neska eder eraman ukan zituztela, kordelier hark dama harekin egin nahi ukan zuen modu berean; eta erdietsiko zuen hori ere, izan ez balitz Gure Jaunaren graziagatik, zeina beti baitago Haren baitan esperantza dutenen fabore. Eta aipatu monasterioa bipildu egin zuten ohointzaz eskuratu gauzez eta han ziren neska ederrez, eta fraideak barnean sartuz su eman zioten, krimen haren memoria betiereko gordetzeko, zeinaren bidez jakiten ahal baita ez dagoela deus perilosagorik bizioan funtsatu amodioa baino, eta, orobat, ez dela deus humanoagorik ez laudagarriagorik bihotz bertutetsu baten baitan bizi den amodioa baino.

«Gaitziturik nauzue, ene andereok, ikusirik egiak ez digula kordelieren faboreko hainbat istorio ekartzen nola ekartzen baitigu haien kontrako, zeren plazer handia eginen lidake, haien ordenari diodan atxikimenduagatik, laudatzen ahal nituzkeen istorio baten berri jakiteak; baina, egia erratea zin egin dugunez, beharturik nago, hain jende fidagarriak kontaturikoen berri ukanik, ez isiltzera, eta segurtatzen dizuet ezen, elizgizonek beren memoriaren laudagarri diratekeen egitateak egin ditzatenean, eginahal handiagoa eginen dudala haiek goresten kontatu berri dudan honen egia erraten egin dudana baino».

«Fede onez diotsut, Geburon —erran zuen Oisillek—, horra krudelkeria deitura merezi lukeen amodio bat».

«Harriturik nago —erran zuen Simontaultek—, nola ukan zuen fraide hark pazientzia, dama atorra-has ikusirik eta bera nagusi izaten ahal zen lekuan, ez behartzeko».

«Harena ez zen jaidura hutsa —erran zuen Saffredentek—, ezpada gormankeria; izan ere, egunero-egunero gozatu nahi zuenez, ez zuen dastatze hutsez libertitzen denbora eman nahi».

«Ez da hori —erran zuen Parlamentek—, konprenitu behar da gizon sumindu bat beti dela beldur, eta bera harrapatu eta zeukan harrapakina kenduko zioten beldurrak bildotsa hartu eta eramanarazi egin zukeen, nola otsoak eraman ohi duen ardia, gero gogara jan ahal izateko».

«Alabaina —erran zuen Dagoucinek—, ez nuke erranen fraide hark emazteki hari amodioa zionik, ez eta harena bezalako bihotz gaizto batean jainko bertutetsu hori bizitzen ahal zenik ere».

«Nolanahi ere —erran zuen Oisillek—, ongi gaztigatua izan zen. Jainkoari otoitz egiten diot halako eginbideei iduriko gaztiguak eslei dakizkien. Baina nori emanen diozu hitza orain?».

«Zuhauri, anderea —erran zuen Geburonek—: ukanen duzu segur istorio onen bat guri kontatzeko».

«Ene aldia denez —erran zuen Oisillek—, zinez bikaina den bat kontatuko dizuet, ene mendean gertatua eta ikusi zuenak berak kontatua. Segur naiz ongi dakizuela heriotza dela gure malur guzien azkena, baina, gure malurrari fin ematen dionez, erraten ahal da hura dela gure zoriona eta gure pausu segura. Gizon-emazteen zorigaitza, beraz, heriotzaren desira ukan eta hura erdietsi ezina da; horregatik, gaizkile bati eman dakioken gaztigurik handiena ez da heriotza, ezpada tai gabeko tormentu bat: hain handia, ezen desiragarri bilakatzen baitu heriotza, eta hain ttipia, ezen ezin baitu hura aitzinatu. Bada horrela erabiltzen zuen senar batek emaztea, orain berean entzunen duzueenez».

HOGEITA HAMABIGARREN ISTORIAO

Bernagek, jakin zuelarik dama alemaniar bat nolako pazientziaz eta umiltasunez sumetitzen zitzaion bere laxokeriaren kariaz senarrak betearazten zion penitentzia bitxiari, halako moldez konbentzitu zuen senar hura, zeinak, iragana ahantziz, emaztea gupidetsi egin baitzuen, eta, gibelerat berekin hartuz, hagitz seme-alaba ederrak ukan zituen gerora.

Karlos erregeak, deitura hori zuen zortzigarrenak, Alemaniara igorri zuen zaldun bat, Bernage izenekoa³, Amboisetik hurbil den Sivray-ko jauna zena, zeina, zalu-zalu ibiltzeagatik, gau eta egun entseatu baitzen bere bidean aitzina egitera, halako moduan, ezen arrats batez, biziki berant, arribatu baitzen zaldun baten gaztelurat, non ostatua galdegin eta doi-doia erdietsi ahal ukan baitzuen. Nolanahi ere dela, zaldunak jakin zuelarik Bernage halako errege baten zerbitzaria zela, harenganat heldu zen, eta arren galdatu zion ez gaizki hartzeko etxeko jendeen dorpetasuna, zeren, gaizkia desira zioten emaztearen ahaide batzuen kariaz, beharturik baitzen bera etxea modu hartan hetsirik ukaiterat. Halaber, Bernagek jakinarazi zion zein mandaturekin heldu zen, eta zaldunak bere burua eskaini zion ahal zuen zerbitzu oro egiteko jaun zuen erregearendako, eta bere etxera eraman zuen, non ohore guziz ostatatu eta bestatu baitzuen.

Afaltzeko tenorea zen, eta zaldunak tapiz ederrak zintzilik zeuden sala eder baterat eraman zuen. Eta jatekoa mahairat ekarri zuten bezain laster, ikusi zuen tapizeriaren gibeletik ateratzen zela emazteki bat, ikusten ahal zenik eta ederrena, baina burua arradaturik zeukana, eta gaineratekoan beltzez beztitua alemaniar moldean. Eta zaldunak Bernage jaunarekin batera eskuak garbitu zituelarik, eraman zioten ura dama hari, zeina eskuak garbituz mahai burura joan baitzen esertzera, nehorekin mintzatu gabe, eta harekin ere nehor mintzatzen ez zela. Bernage jaunak finki behatu zion eta sekulan ikusia zuen damarik ederrenetarik zela iduri zitzaion, salbu begitartea biziki zuhaila eta kara biziki tristea zuela. Damak, zerbaitxo jan eta gero, edateko galdatu zuen, eta hango sehi batek ekarri egin zion ontzi harrigarri batean, zeina burezur bat baitzen, begi zuloak zilarrez estaliak zeuzkana; eta handik edan zuen bizpahiru aldiz. Afaldu zuelarik eta eskuak berriz garbitu ondoren, etxeko jaunari gur egin eta tapizeriaren gibelerat itzuli zen, nehoi hitzik egin gabe. Bernage hain zen harriturik halako gauza arrotza ikusirik, non guziz triste eta pentsakor gelditu baitzen. Zaldunak, ohartu egin baitzen, erran zion:

—Ohartu naiz estonatu egin zarela mahai honetan ikusi duzunaz, baina, ikusirik zure baitan dagoen onestasuna, ez dizut gorde nahi zer den, ez dezazun pentsa ene baitan halako krudelkeriarik dagoenik kausa handirik gabe. Ikusi duzun dama hori ene emaztea duzu, zeina sekulan gizon batek emazteki bat maite ukan duen baino gehiago maite ukan baitut, hainbertze, ezen, harekin esposatzeko, beldurrak oro ahantzi eta honat ekarri bainuen, haren burasoen gogoz kontra. Berak ere halako amodio txerak egiten zizkidan, ezen ene bizia hamar mila aldiz menturatuko bainuen hura honat ekartzeko, beraren eta bion atseginerako; eta horrela bizi izan ginen denbora batez, halako pausuan eta bozkarioan, non giristino herri guziko zaldunik urosentzat bainuen ene burua. Baina, egin nuen bidaia batean, ene ohoreak

³ Pertsonaia hau Claude Bernage izan daiteke, Luis XI.ak Amboise-tik Reims-era igorri zuena 1475ean, han egiten ari ziren harresi lanak gainbegiratzera. Beste batzuen ustez, baina, Luis XI.aren seme Karlos VIII.aren zerbitzari bat izan daiteke. (I. O.)

hartaraturik egin behar ukan bainuen, hark bere ohorea, kontzientzia eta eneganat zuen amodioa ahantzi zuen, eta etxean hazia nuen zaldun gazte batekin amorostu zen; eta horretaz ohartu nintzen, itxuraz, itzuli nintzelarik. Alabaina, hain zen handia nion amodioa, ezen ezin bainintzen harekin mesfida izan, harik eta esperientziak begiak zabaldu zizkidan arte, eta orduan ikusi nuen heriotzak baino beldur handiagoa ematen zidana. Horren kariaz, nion amodioa sumindura eta etsimendu bilakatu zen, halako maneran ezen hain hurbiletik zelatatzen bainuen, eta, egun batean, kanporat nindoalako itxura eginez, bera orain egon ohi den ganberan gorde bainintzen, eta, ni partitu eta gutira, bera erretiratu egin zen eta zaldun gazte hura jinarazi zuen, eta han ikusi nuen hura ganberan sartzen eta emaztearekin eni baizik ez dagokidan ausarkeriaz zebilela. Baina, ikusi nuelarik damaren ondoan oheratzera zihoala, jalgi nintzen eta beso artean harrapatu nuen, eta ero egin nuen. Eta emazteak egin krimena hain iduri zitzaidan handia, ezen hiltze harekin zigortzea ez baitzuen aski, eta heriotza bera baino nardagarriagoa izanzen zitzaion zigorra ezarri nion: plazerik handienak hartzeko erretiratzen zen ganbera haren barnean gakotu nuen, eta ni baino anitzez gehiago maite zuen haren konpainian, gainera; eta ganberako armairu batean jarri nizkion bere lagunaren hezur guziak, kabinete batean zer baliosak zintzilikatu ohi diren moduan. Eta haren memoria gal ez dezan, han aterarazten diot mahairat, otordu orotan, koparen orde gaizto haren burezurra; eta hori, ene aitzin-aitzinean, bizirik ikus dezan bere hobenez heriotzarainoko etsai bihurtu ninduen hau, eta beraren amodioz hilik ni baino gehiago maite nahi ukan zuena. Eta horrela, bazkaltzean zein afaltzean hor ikusten ditu atsekaberik handiena eragin behar dioten bi gauzak: etsaia bizirik eta maitea hilik, eta dena beraren hobenez. Gaineratekoan, ene burua bezala dut tratatzen, salbu berak ilea arras mozturik duela, ez baitagokio adulteroari orrazkerarik, ez eta lizunari belorik. Horregatik darama burua arradaturik⁴, birjintasuna eta onestasuna galduak dituela erakutsiz. Ikusi nahiko bazenu, eramanen zintuzket harenganat.

Eta gogotik onetsi zuen hori Bernagek: jaitsi ziren biak, eta han kausitu zuten dama ganbera eder batean, bakar-bakarrik, supazter xokoan jarririk. Zaldunak tira egin zion armairu handi baten aitzinean zen erridau bati, eta han azaldu ziren gizon hil baten hezur guziak zintzilik. Bernagek gogo handia zuen damarekin mintzatzeko, baina, senarraren beldur, ez zen menturatu. Zaldunak, hartaz oharturik, erran zion:

—Deus errateko plazer baduzu, ikusiko duzu nolako grazia duen eta zein ele-ederra den. Bernagek, berehala, erran zion:

—Andere hori, sufrikarioaren heinekoa duzu pazientzia. Iduri zait munduko emaztekirik malurusena zarela.

Damak, negar xorta begian zuela, denik eta graziarik umilenaz, erran zion:

—Jauna, aitor dut ene hobena hain dela handia, ezen hemengo jaunak (zeina ez bainaiz gai senar izendatzeko ere) egiten ahal dizkidan makurrak oro ez baitira enetako deus hura laidoztatu ukanaren damuaren aldean.

Eta hori erranik, negarrez hasi zen saminki. Zaldunak, Bernage besotik atxiki eta eraman egin zuen handik. Biharamun goizean, Erregek egin mandatua betetzera partitu zen. Bizkitartean, zaldunari adio eginez, ezin izan zen joan hari erran gabe:

—Jauna, nik zuri dizudan atxikimenduak eta zurean naizenetik eskaini didazun ohoreak eta etxekotasunak behartzen naute erratera ezen iduri zaidala, ikusirik zure emazte gaixoaren

⁴ Ilea arras eramatea desohorearen seinale da (ikus Pauloren 1. gutuna korintoarrei, 11:5). (I. O.)

baitan den damu handia, urrikalmendua zor diozula; orobat, gaztea zarela, eta ez duzula haurrik, eta makur handia litzatekeela zurea bezain etxe ederra galtzea, eta agian batere maita ez zaituztenek erdiestea ondoriotasunez.

Zaldunak, zeina deliberatua baitzen emazteari sekulan ez mintzatzera, luzaz erabili zuen gogoan Bernage jaunak errana, eta, hondarrean, ohartu zen hark egia zioela, eta hitzeman zion ezen, emazteak orain arte bezain umil segitzen bazuen, gupidetsiko zuela egunen batean. Horrela partitu zen Bernage bere mandatua egiterat. Eta itzuli zelarik bere jaun Erregeren baitara, burutik buru kontatu zion dena, eta printzea ere ber iritzikoa izan zen; eta, bertzeak bertze, damaren edertasuna aipu ukan zuenez, igorri zuen Erregek bere pintorea, Jehan de Paris izenekoa⁵, dama haren erretratua zuzenki egin eta ekar ziezaion. Eta hala egin zuen hark senarraren baimenaz, zeinak, penitentzia luze baten ondoren, haurrak ukaiteko zuen desiragatik eta emazteaz zuen pietateagatik —eta hark bere penitentzia onesteko ukan zuen umiltasunagatik—, berekin hartu baitzuen berriz emaztea, eta harekin ukan zituen anitz haur eder.

«Ene andereok, halako kasuan suertatu diren emazte guziek eite horretako godalet batean edanen balute, zinez beldur naiz ez ote liratekeen hainbat kopa urreztatu burezur bilakatuko. Jainkoak begira gaitzala, zeren, haren borondateak atxikitzen ez bagaitu, ez da nehor gure artean makurragorik egiten ahal ez duenik; baina, Hari konfiantza eginez gero, begiratuko ditu beren burua begiratzeko gai ez direla aitortzen dutenak. Eta beren ahulezia aitor dezaten arte tentatuak izateko peril handian dira beren indarrean fidatzen direnak. Eta ikusi izan dira emazteak halakoetan trebukurik, zeinetan ohoreak salbatu dituen hain bertutetsuak ez bide ziren bertze batzuk. Hala dio erran zaharrak: “Jainkoak begiratzen duena ongi begiratua da”.».

«Ene iduriz —erran zuen Parlamentek—, zigor hori ahal zitekeen arrazoizkoena izan zen; zeren laidoa heriotza baino makurragoa den gisa berean izan behar du zigorrak heriotza baino makurrago».

Ennasuitek erran zuen:

«Ez nauzu ni iritzi berekoa, zeren nahiago bainuke ene bizi guzian ene amorante guzian hezurak kabinetean ikusi, ezen ez haiengatik hil, ez baita, bistan da, zuzendu ezin den makurrik; ordea, heriotzaren ondoren ez dago deus zuzentzerik».

«Nola zuzenduko zenuke ahalkea? —erran zuen Longarinek—, ongi baitakizu ezen, halako makur baten ondoren, emazteki batek egiten ahal duen deusek ezin diola ohorea erreparatu».

«Arren galdatzen dizut —erran zuen Ennasuitek—, erradazu ea egun ez ote duen Magdalenak ohore handiagoa gizon-emazteen artean haren ahizpa birjina zenak baino».

«Aitor dizut —erran zuen Longarinek— ezen hura laudatua dela gure artean Jesu Kristori ukan zion amodio handiagatik eta pairatu zuen penitentzia handiagatik; baina berekin du oraino bekatari deitura».

⁵ Jean Perréal, XV. mende bukaerako pintore ezaguna, Frantziako Karlos VIII.aren, Luis XII.aren eta Frantzisko I.aren gorteetan aritu zena. (I. O.)

«Ez dit axola —erran zuen Ennasuitek— zein deitura ematen didaten jendeek, ezpada Jainkoak barka nazala eta orobat ene senarrak. Deusengatik ere ez nuke hil nahi».

«Andereño hark bere senarra zuzen den bezala maite baldin bazuen —erran zuen Dagoucinek—, harritzen naiz nolaz ez zen doluminez hiltzen, bere bekatuaren kariaz hilarazi zuen haren hezurak ikustean».

«Nola, bada, Dagoucin —erran zuen Simontaultek—, ez dakizu oraino emazteek ez dutela ez amodiorik ez damurik ezagutzen?».

«Jakiteko nago oraino —erran zuen Dagoucinek—, izan ere, ez naiz sekulan menturatu haien amodioaren peskizan, desira dudana baino gutiago kausitzeko beldur».

«Fedetik eta esperantzatik bizi zara, beraz —erran zuen Nomerfidek—, nola txirria haizetik⁶? Ongi ase-erraza zara, gero!».

«Nik aski dut —erran zion hark— ene baitan sentitzen dudan amodioarekin eta damen bihotzean halakorik badelako esperantzarekin, baina, iguriki bezala, segur banendi horretaz, hain biziki loriatuko nintzateke non ezin jasanen nukkeen hil gabe».

«Begira zaitetz ongi izurritik —erran zuen Geburonek—, zeren bertze gaitz horretatik trankil egoten ahal zara. Baina nik jakin nahi nuke nori emanen dion hitza Oisillek».

«Emanen diot Simontaulti —erran zuen hark—, bai baitakit ez duela nehor gupidetsiko».

«Apur bat mihi-gaiztoa naizela erratea bezala da hori, ezta —erran zuen Simontaultek— ? Alabaina, erakutsiko dizuet mihi-gaizto deituriko anitzek egia erran izan dutela. Iduri zait, ene andereok, ez zaretela kontatzen dizkizueten istorio guziak sinesteko bezain zozoak, ukaiten ahal duten ezein saindutasun itxura dutela ere, dauden frogak ez baldin badira duda uxatzeko bezain fermuak. Izan ere, halako mirakuluen pean gehiegikeriak egon ohi dira ardua; eta hori dela-eta, mirakulu bat kontatu nahi nizueke, zeina gehiago izanen baita printze leial baten goresmenez elizgizon gaizto baten desohoretan baino».

⁶ Rabelais-ek ere aipatutako elezahar baten arabera, hegazti hankaluze horiek (txirriak) haizeaz elikatzen direlako uste okerra zegoen artean garai hartan. (I. O.)

HOGEITA HAMAHIRUGARREN ISTORIOA

Apez baten hipokrisia eta gaiztakeriak, saindutasunez bezti arreba izorra utzia baitzuen, agerian gelditu ziren Angulemako kondearen zuhurtziari esker, eta haren manuz justiziak zigorra ezarri zuen.

Angulemako Charles kondea, Frantzisko erregearen aita⁷, printze leiala eta Jainkoa errespetatzen zuena, Cognac-en zegoen, non kontatu baitzioten, handik hurbileko herri batean, Cherves izenekoan⁸, bazela neska birjina bat, halako austeritatean bizi zena, ezen miresteko zer baitzen, eta hala ere izorra kausitu zutela. Hark ez zuen, ordea, nehola ere disimulatzen, eta jende orori segurtatzen zion ez zuela sekulan gizonik ezagutu eta ez zekiela nolaz agitu zitzaion hura, ezpada Izpiritu Sainduaren obra zela. Eta jendeak aise sinesten zion, eta bigarren Andredena Maria bat balitz bezala hartu eta halako fama ematen zioten, zeren guziek baitzekiten haurra zenetik izan zela hain zuhurra, non ez baitzen haren baitan mundukeriarik batere izan. Eta barur egiten zuen ez soilik Elizak manatu egunetan, ezpada asteen barna ere zenbait aldiz bere debozioak eskatu arau, eta elizkizunen bat baldin bazen, ez zen elizatik mugitu ere egiten. Horregatik, hainbertze estimatzen zuen jende guziak haren bizitza, non harat heltzen baitziren denak hango mirakulua ikustera, eta lorios zen zinez haren beztimenda ukitzea erdiesten zuen oro. Parrokiako apezka anaia zuen, gizon adinekoa eta bizimodu zorrotzekoa, eliztarrek estimatua eta gizon saindutzat zeukatena, eta hain hertsiki tratatzen zuen arreba, non etxe batean hetsarazi baitzuen, eta hori ez zitzaion jendeari laketu. Eta hain erasia handia sortu zen, ezen, erran dizuedan bezala, berriak kondearen belarrietarat heldu baitziren. Hark, ikusirik sortu nahasmendua, eta populua handik idoki nahirik, entzule maisu bat eta erremusinari bat igorri zituen, bi-biak ere biziki jende onak, egia jakiteko. Eta joan ziren haiek leku hartarat, eta ahalik eta zaluenik bildu zuten kasuari buruzko informazioa, apezarekin mintzatuz, zeina hain zegoen enoaturik afera hartaz, ezen galdatu baitzien biharamunean jin zitezten egin asmo zuen egiaztatze probara.

Aipatu apezak goizean goizik kantatu zuen meza, eta han egon zen arreba, belauniko denbora guzian haurbidean aitzinatua bazen ere, eta, meza bururatu zelarik, apezak, Corpus Dominia hartu, eta, han ziren jende guzien aitzinean, erran zion arrebari:

—Oi, malurusa, hemen duzu zuregatik heriotza eta pasioa pairatu duen Hau, eta honen aitzinean galdegiten dizut ea birjina zaren, beti segurtatu ukan didazun bezala.

Neskak ausart ihardetsi zion baietz.

—Eta nola da posible, orduan, birjina iraun eta izorra egotea?

Neskak ihardetsi zuen:

—Ezin dut bertze azalpenik eman, ezpada Izpiritu Sainduaren graziaz izan dela, zeinak ene baitan plazer duena egiten baitu; baina ezin dut ukatu Jainkoak birjina atxikiz eman didan grazia, sekulan ez baitut ezkontzeko desirarik ukan.

Anaiak, berehala, erran zion:

⁷ Frantzisko I.a Frantziakoaren eta haren arreba Margarita Nafarroako erreginarene aita, 1496an hila; Angulemako konderraren lagapen-hartzaile zen garai hartan. (I. O.)

⁸ Egun, Cherves-de-Cognac. (I. O.)

—Jesu Kristoren gorputz preziosa emanen dizut, zeina zure kondenamendurako hartuko baituzu diozun hori egia ez baldin bada, eta konde jaunak igorririk hemen diren Jaun hauek izanen dira lekuko.

Neskak, zeinak hogeita hamar urte baitzituen⁹, honela egin zuen zin:

—Gure Jaunaren gorputza hartzen dut, hemen dena zuen aitzin, ene kondenamendurako, zuen aitzinean, jaunak, eta zurean, ene anaia, nehoiz zu ez bertze gizon batek ukitu baldin banau.

Eta hori erranez hartu zuen Gure Jaunaren gorputza. Entzule maisua eta kondearen erremusinaria, hura ikusiz, guziz nahasirik joan ziren, pentsatuz halako juramentuak ez ziola lekurik uzten gezurrari. Eta erreportatu zioten guzia kondeari, sinetsarazi nahiz berek sinesten zutena. Baina hark, zuhurra baitzen, ongi pentsatu ondoren, erranarazi zien berriz juramentua hitzez hitz, eta gogoetatu ondoren erran zien:

—Neskak erran dizue sekulan ez zuela gizon batek ukitu, salbu eta anaiak; eta ene iduriz, egiaz, anaiak egin dio haur hori, eta bere gaiztakeria estali nahi du orain disimulu handi baten pean. Baina guk, behin etorri zen Jesu Kristorengan sinesten dugunok, ez genuke bertze baten beha gelditu behar. Horregatik, zoazte berriz eta sar ezazue apezka kartzelan. Segur naiz aitortuko duela egia.

Eta hark manatu moduan egin zen; ez, ordea, erasia handirik gabe halako gizon onari egiten zitzaion eskandaluaren kariaz. Eta apezak, preso hartu zuten bezain zalu aitortu zuen bere gaiztakeria, eta nola aholkatu zion arrebari erraten zuena erratera, elkarrekin ukana zuten bizitza estaltzeko, eta ez soilik estakuru arin batez, ezpada erakustera emate faltsu batez, zeinaren bidez ohoretsu ageri baitziren jende ororen aitzinean. Eta neskari zin eginarazteko Gure Jainkoaren gorputza hartzeko bezain tzarra nola izan zen erantzuki egin zitzaionean, ihardetsi zuen ez zela bera hain ausarta, eta hartu zuen ogia ez zegoela ez sagaratua eta ez benedikatua¹⁰. Eta egin zitzaion erreporta Angulemako kondeari, zeinak galdegin baitzion justiziarri zuzena zena egin zezan. Iguriki zuten arreba erdi zen arte, eta, seme eder bat ukan zuelarik, erre egin zituzten elkarrekin anai-arrebak, eta populu osoa balditurik gelditu zen, ikusi zutenean halako beztimenda saindu baten pean hain munstro ikaragarria zegoela, eta halako bizimodu laudagarri eta sainduaren pean hain bizio hastiagarria zela nagusi.

«Hara, ene andereok, nola konde onaren fedea ez zuten garaitu kanpoko zeinuek ez eta mirakuluek ere, hagitz ongi baitzekien Salbatzaile bakarra dugula, zeinak, “Consummatum est” dioelarik, argi utzi baitu ez dagoela haren ondokorik gure salbamendurako».

«Segurtatzen dizuet —erran zuen Oisillek— ezen ausartzia eta hipokrisia handia izan zela Jainkoaren eta giristino onaren beztimendaz halako bekatu izugarria estaltzea».

«Entzun ukan dut —erran zuen Hircanek— ezen, Erregeren mandatu baten itxuran, krudel eta tirano jokatzen dutenak bigatan zigortuak izan ohi direla, beren injustizia Erregeren justiziapean estaltzen dutelako; halaber, ikusiko duzue nola hipokritak, nahiz eta aitzinerat egin denbora batez Jainkoaren eta saindutasunaren beztimendapean, Jainko Jaunak bere mantoa altxatzen duenean, hor gelditzen diren denak agerian eta biluz. Eta berehala, haien biluztasun, zikinkeria eta tzarkeriak itsusiago agertzen dira beren estalkia ohoretsua den baino».

⁹ Zenbait bertsiotan neskak hamahiru urte zituela dio. (I. O.)

¹⁰ Bedeinkatu gabeko ostia bat zela, alegia. (I. O.)

«Ez da deus atseginagorik —erran zuen Nomerfidek— bihotzak pentsatu ahala laño-laño mintzatzea baino!».

«Mozkina ateratzeko ari zara¹¹ —ihardetsi zuen Longarinek—, iduri zait zure kondizioaren arabera ematen ari zarela iritzia».

«Erranen nizuke —erran zuen Nomerfidek— ezen zoroak, hil ezean, zuhurrak baino luzazago bizi ohi direla, eta arrazoi bakarra ikusten dut horretarako, eta da ez dituztela batere disimulatzen beren pasioak. Samurturik badira, joka hasiko dira; bozkariotsu badira, irriz; eta zuhur itxuran dabiltzanek hainbertze disimulatzen dituzte beren itzalak, non beren bihotzak pozoiturik baitituzte osoki».

«Eta nik uste dut —erran zuen Geburonek— egia diozula, eta jasaten ditugun gaitz guzien kausa hipokrisia dela, izan Jainkoaganakoa, izan gizon-emazteekikoa edo Naturerekikoa».

«Ederra litzateke —erran zuen Parlamentek— gure bihotzak hain beterik baleude oro bertute eta bozkario den Haren fedez, ezen libreki erakusten ahal baikenizkioke jende orori».

«Hori —erran zuen Hircanek—, gure hezurren gainean batere haragirik ez den tenorean izanen da».

«Ordea, Jainkoaren izpirituak —erran zuen Oisillek—, zeina heriotza baino azkarragoa baita, mortifikatzen ahal du gure bihotza, gorputza kanbiatu eta hondatu gabe».

«Ene andere hori —erran zuen Saffredentek—, gizon-emazteen baitan oraino komun ez den Jainkoaren dohain batez ari zara».

«Komuna da fededunen artean —erran zuen Oisillek—, baina, haragikoiek¹² adituko ez dutenez ongi gai hau, jakin dezagun nori ematen dion hitza Simontaultek».

«Nomerfideri emanen diot —erran zuen Simontaultek—, zeren, bihotza bozkarioz beterik duenez, ez baitigu ele tristerik ekarriko».

«Eta egiaz —erran zuen Nomerfidek—, irri egiteko gogoz zaretenez, hartarako parada emanen dizuet. Eta erakusteko zenbateko kaltea ekartzen duen beldurrak eta ezjakintasunak, eta nola sarri mintzo baten ongi ez aditzeak ekartzen ahal duen hainbat gaitz, kontatuko dizuet Niorteko bi kordelierrri agitu zitzaiena, zeinak, harakin baten eleak ongi ez aditzeagatik, hiltzear zirela uste ukan baitzuten».

¹¹ Bertsio batzuetan "Trufaz ari zara" ematen dute pasarte honetan. (I. O.)

¹² Biblian dioenez, haragian bizi direnak, hots, bekatuan. (I. O.)

HOGETA HAMALUGARREN ISTORIOA

Bi kordelierrek, berendako ez zen sekretu bati beha egoteagatik, harakin baten leak gaizki interpretatu eta perilean ezarri zuten beren bizia.

Bada herri bat Niort eta Fors artean, Grip izenekoa, Forseko jaunari dagokiona. Egun batean, Niortetik heldu ziren bi kordelier biziki berant arribatu ziren Grip horretara, eta harakin baten etxean hartu zuten ostatu. Eta haien ganberaren eta ostalariaren artean zinez gaizki eratxikiriko holtz bat baizik ez zegoenez, senarrak emazteari ohean zirela zer erraten zion entzuteko gogoia ukan zuten; eta belarria atxiki zuten ostalariaren oheburuaren alderat, zeina, ostataturik zeuzkan haietaz mesfidatu gabe, emaztearekin ari baitzen buruz buru etxeko aferez, eta erraten zion:

—Maitea, goiz jaiki beharra dut bihar gure kordelierrak ikusteko, ba baita bat aski gizona, eta kalitu egin behar dugu; gatzetan jarriko dugu segidan eta probetxu oneko izanen zaigu.

Eta hark bere urdeak aipu zituen bitartean, kordelier erraten baitzien, bi fraide gaixoak, konjurazio hura entzunik, segur izan ziren beren buruez ari zirela, eta beldur eta izu handiz egon ziren eguna noiz argituko. Haietarik bat biziki gizona zen eta bertzea aski meharra. Gizona kofesatu egin nahi zen lagunarekin, eta erraten zion ezen Jainkoaren amodioa eta harenganako beldurra galduak zituen harakin batek idi bat edo bertze edozein kabala bezain aise sarraskituko zuela bera. Eta ikusirik beren ganberan hetsirik zeudela, eta handik ez zirela jalgitzen ahal ostalariarenetik iragan gabe, guziz segur egon behar zuten beren heriotzaz, eta Jainkoari gomendatzen zizkieten beren arimak. Baina gazteenak, ez baitzen bere laguna bezain ikaraturik, erran zion ezen, atea hetsirik zegoenez, entseatu behar zutela leihoan barna ateratzera, zernahi zela ere ez baitzen heriotza baino makurragoa izanen. Eta gizona akort izan zen. Ireki zuen gazteak leihoa, eta, ikusirik handik lurrera ez zegoela goratasun handirik, jauzi egin eta ahalik eta zaluena eta urrunena lekutu zen handik lagunaren beha egon gabe, eta hura ere menturatu zen jauzi egitera. Baina bere pisuak lurrean geldiarazi zuen; izan ere, jauzi baino gehiago erori egin baitzen dorpeki, eta biziki kolpatu zen zango batean.

Eta, ikusi zuelarik lagunak abandonatu egin zuela eta ezin zuela aitzina egin, ingururat behatu zuen ea non gordetzen ahal zen; txerritegi bat baizik ez zuen ikusi, eta haraino herrestatu zen ahal ukan zuen bezala. Atea zabaldu zuelarik barnean gordetzeko, han eskapatu ziren bi urde handi, eta haien lekuan kukutu zen gaizo kordelierra, borta tipia bere gibeletik hetsiz, eta espero zuen, jendea ingurutik sentitzean, deitu ahal ukanen zuela sokorri eske. Baina goiza heldu bezain fite, prestatu zituen harakinak bere ganibet handiak eta erran zion emazteari berekin etortzeko urde gizona hiltzera. Eta kordelierra gorderik zegoen txerritegirat heldu zelarik, oihuka hasi zen biziki ozen, borta tipia zabaltzen zuela:

—Jalgi hadi kanporat, kordelier jauna, jalgi hadi kanporat, egun hire odolkiak ukanen ditiagu eta!

Gaizo kordelierra, zango gainean sustengatu ezinik, lauoinka jalgi zen handik, urrikalmendua eskatuz ahalik eta gorakienik. Eta fraide gaixoaren beldurra handia baldin bazen, ez zen tipiagoa harakinaren eta haren emaztearen izua, zeren haiek pentsatu baitzuten San Frantzisko samurtu zitzaizela azienda bati kordelier deitura ematen ziotelako, eta belauniko jarri ziren anaiaren aitzinean, San Frantziskori eta haren ordenari barkatzeko galdatuz, eta hala, batetik kordelierra zebilen harakinari urrikal zekion galdatzen, eta bertzetik harakina berari,

halako maneran, non batak eta bertzeak han egon baitziren ordu laurdenez, jabaldu ziren arte. Hondarrean, aita onak, oharturik harakinak ez ziola neholako gaitzik eragin nahi, erran zion zergatik zegoen kukuturik txerritegian, eta haien beldurra irri bilakatu zen berehala, ez bazen kordelier gaixoa, min baitzuen zangoan, ezin zela loriatu. Baina harakinak etxerat eramane zuen eta biziki ongi goxatu zizkion zauriak. Haren lagunak, zeinak ataka gaitz hartan utzia baitzuen, gau osoa eman zuen lasterka, halako moduan non goizean Forseko jaunaren etxerat heldu baitzen, eta han harakin hartaz pleinitu zen, laguna hil zuelakoan, ez baitzen hura beraren gibelatik heldu. Aipatu Forseko jaunak norbait igorri zuen berehala Griperat egia jakiteko. Hura jakinik, ez zitzaion nehola ere negar egiteko modukoa iduritu, eta huts egin gabe joan zitzaion kontatzerat bere andere nagusi Angulemako dukesari, zeina Frantzisko izendun lehen erregearen ama baitzen.

«Hara, ene andereok, nola ez den norberarendako ez den sekretu bat entzun behar eta bertzeren eleak gaizki aditu».

«Ongi nekien Nomerfidek ez zigula negarrik eraginen —erran zuen Simontaultek—, ezpada irri eginaraziko zigula gogotik; eta horretan ordain ederra hartu dugu denok».

«Orduan —erran zuen Oisillek—, emanagoak gara erokeria batekin libertitzera zuhurki egin gauza batekin baino?».

«Izan ere —erran zuen Hircanek—, halakoak laketagoak zaizkigu, gure izaeratik hurbilagoak izaki, ez baita hura, berez, sekulan zuhurra; eta batbederak bere idurikoa du laket: eroak, erokeriak, eta zuhurak, zuhurtzia. Ene ustez —erran zuen—, ordea, ez dago ez zuhurrik ez erorik, halako istorio batez irri egin gabe irauten ahal duenik».

«Batzuek —erran zuen Geburonek—, hain dute bihotza zuhurtasunari emana, non, entzuten dutena entzuten dutela, ezin baitzaie irria eragin, zeren halako bozkarioa eta hain arraitasun neurritzkoa dute beren bihotzetan, ezen deusek ere ez baititu aldaratzen ahal».

«Non dira halakoak —erran zuen Hircanek—?».

«Iragan denborako filosofoak¹³ —ihardetsi zuen Geburonek—, zeinek doi sentitzen baitzuten tristezia zein loria; edo, bederen, ez zuten neholako alegiarik egiten, hain zuten estimu handian beren buruak eta beren pasioak bentzutzea».

«Eta ongi kausitzen dut nihaurek ere —erran zuen Saffredentek— pasio biziozko bat bentzutzea; baina neholako makurrik ez dakarren pasio natural baten kasuan, alferrikakoa deritzat halako garaitiari».

«Eta, halere —erran zuen Geburonek—, lehengoek estimu handian zuten bertute hori».

«Erran gabe doa —ihardetsi zuen Saffredentek—, guziak ez ziren zuhurak, zentzu on eta bertute itxura gehiago baitzen haien baitan egiatan zegoena baino».

«Bizkitartean —erran zuen Geburonek—, bistan da gauza txarrak aurpegiratzen zizkiotela elkarri, eta Diogenes bera Platonen ohe gainean ibili zen¹⁴, jakin-nahiegia baitzen haren gusturako, adierazteko mespretxatzen zuela eta oinpean erabili nahi zuela Platonen ospe hutsala eta gutizia, erranez: “Oinkatzen dut eta mespretxatzen Platonen urguilua”.».

¹³ Estoikoez ari da. (I. O.)

¹⁴ Diogenes Laerzioren “Filosofoen bizitzak” liburutik dator anekdota hori. (I. O.)

«Baina ez duzu guzia erraten —erran zuen Saffredentek—, zeren Platonek ihardetsi zion bertzelako urguilu bat zela berarena».

«Egia errateko —erran zuen Parlamentek—, ezina da guhaurek bentzutzea guhauren buruak, ez baldin bada urguilu handi batez, eta bizio horri behar diogu ukan denok beldurrik handiena, heriotzak eta bertute guzien hondamendiak sortua baita».

«Ez al dizuet goizean irakurri —erran zuen Oisillek— ezen, bertze gizon-emazte guziak baino zuhurrago izan nahirik eta, arrazoinamenduaren argi batez, gauza ororen sortzailea den Jainkoa ezagutzerat heldu direnak, bilakatu izan direla, ordea, ezjakinago eta zentzugabekoago ez soilik bertze gizon-emazte guziak baino, ezpada basapiztiak berak baino, beren buruei esleitzeagatik loria hori, ezen ez haren iturri den Hari, eta uste ukaiteagatik jakinduria hori beren nekeei esker irabazia zutela? Zeren, beren izpirituetan herraturik, eta beren buruei esleituz Jainkoarena baizik ez dena, agerian utzi dituzte beren hutsak beren gorputzen desordenagatik, beren sexuaren ordena ahantzi eta makurbidean ezarriz, nola erakutsi digun egun Jondoni Paulok erromatarrei eskribituriko gutunean¹⁵».

«Ez da gure artean nehor —erran zuen Parlamentek—, zeinak, gutun horren bidez, ez duen aitortuko kanpoko bekatuak oro ez direla barne zorigaitzaren fruitu baizik; izan ere, zenbatenaz egon zorigaitz hori bertutez eta mirakuluz betea, hainbatenaz eta perilosagoa da errotik erauzteko».

«Gu, gizonok —erran zuen Hircanek—, hurbilago gaude gure salbaziotik zuek, emazteok, baino, zeren, ez ditugunez gure fruituak batere disimulatzen, aiseago ezagutzen ditugu gure erroak; baina zuek, zeinak ez zareten menturatzen haien kanporat erakustera eta hainbertze obra itxurazko egiten duzuen, neke handiz ezagutuko dituzue halako estalki ederraren pean hazten diren urguiluzko erro horiek».

«Aitor dizuet —erran zuen Longarinek— ezen, Jainkoaren hitzak ez badarakuskigu, fedearen bidez, gure bihotzetan gorderiko desleialtasunaren legena, fabore handia egiten digula Jainkoak ageriko edozein irainetan behaztopa egiten dugularik, agerian gelditzen ahal baita orduan estalirik dugun izurria. Eta zinez dohatsu dira fedeak hainbertze umiliaturik beren bekatuzko natura kanpoko efektuen bidez esperimentatzeko batere premiarik ukan ez dutenak».

«Baina begira nondik heldu garen —erran zuen Simontaultek—: erokeria handi batetik abiatu eta filosofia-teologietan erori gara. Utz ditzagun disputa hauek guk baino hobeki argitzen jakinen dutenendako, eta ikus dezagun ea Nomerfidek nori eman nahi dion boza».

«Hircani emanen diot —erran zuen andereak—, baina emazteen ohorea aipa dezan gomendatzen diot».

«Ezinen zenuke gunee hobean erran —erran zuen Hircanek—, zeren prestatu dudan istorioa zuri obeditzeko behar dudan egokiena baitateke, hain xuxen; ordea, istorio honen bidez irakatsiko dizuet aitortzen ezen emazteen eta gizonen natura berez dela bizioari emana, non eta ez duen begiratzen garaitia ororen ohorea zor diogun Hark. Eta zuen ohorea auzitan denean erakutsi ohi duzuen ausartzia apaltzeko, zinez egiazkoa den etsenplu bat azalduko dizuet.».

¹⁵ Erromatarrei 1, 21-32. (I. O.)

HOGETA HAMABORZGARREN ISTORIOA

Iruñeko dama bat, izpirituzko amodioa batere perilosa ez zelako ustean, entseatua zen kordelier baten grazia ona erdiestera, baina senarrak halako moduan bereganatu zuen bere zuhurtziaz emaztearen atxikimendua, non, andereari kordelierrarekin zuen afera hartaz deus zekienik erran gabe, erdietsi baitzuen guziz gorrota zezan gehien maite zuen hura eta osoki eman zekion senarrari.

Bazen Iruñeko hirian estimu oneko dama eder eta bertutetsu bat, herrialdean nehoiz izan zen xahu eta debotoena zena. Maite zuen senarra eta hain zitzaion obediencia, ezen hura emazteari zegoela osoki. Dama hura tai gabe joaten zen elizkizunetara eta predikuak entzutera, eta senarra eta haurrak berak bezala egitera gogatu zituen. Hogeita hamar urteko adinean zela, zeinetan emazteek eder izena utzi eta jakintsu deitura hartu ohi baitute, Garizumako lehen egun batez elizarat joan zen heriotza gogoan hartzera¹⁶, eta han entzun zuen kordelier batek egin predikua; kordelier hura gizon saindutzat zeukan jende guziak, haren austeritate handi eta bizibide zuzenagatik, zeinek mehar eta zuhail errendatua baitzuten, baina ez munduko gizonik ederrenetarik bat ez izateko bezainbat. Damak debozio handiz entzun zuen predikua, begiak pertsona ohoragarri harendako hetsirik, eta beharriak eta izpiritua entzuteko prestik. Eta hala, haren eleen ezia beharrietan barna sartu zitzaion damari bihotzeraino, eta haren edertasuna eta begitartearen grazia begietan barna, eta hain azkarki kolpatu zioten izpiritua, ezen xarmaturik bezala gelditu baitzen. Predikuaren ondoren, artoski behatu zuen ea predikariak meza non erranen zuen, harat jo eta hautsa hartu zuen haren eskutik¹⁷, eta esku hura emazteki batena bezain eder eta zuria iduritu zitzaion. Eta gehiago behatu zion hari, hain xuxen, hark zekarkion hautsari baino. Eta, segur baitzen ezen halako amodio izpirituzko batek, eta hartatik berak sentitzen zuen zenbait plazerek, ezin ukanen zutela beraren kontzientzia zaurtu, ez zuen huts egiten egunero senarrarekin batera predikura joatea; eta bai batak eta bai bertzeak halako moduan goستن zuten predikaria, ezen mahaian eta bertzetan ez baitzuten bertze solasik. Halatan, su hura, izpirituzkoa izatearen itxurapean hain izan zen haragizko, non halako moduan lotu zitzaion dama gaixoaren bihotzari, ezen gorputz osoa erre baitzion; eta sugar hura sentitzen berant ibili bazen ere¹⁸, zalu ibili zen irazekitzen, eta amorostua zela jakin aitzin sentitu zuen pasioak ematen zion bozkarioa. Eta hala, etsai Amodiok ustekabean hartzen duen emazte orok bezala, ez zion gehiago iharduki haren ezein manuri. Baina makurrena zen ezen haren oinazeendako medikua ezjakin zela guziz haren gaitzaz. Eta hala, bere erokeria halako gizon prestu bati, bere bizioa eta gaiztakeriak halako gizon bertutetsu eta on bati erakusteko ukan behar zukeen beldur oro alde batera utzirik, zion amodioaz eskribitzeari lotu zitzaion, ahalik eta goxoen, hasteko; eta eman zizkion gutunak zerbitzari gazte bati, eta erran zion zer egin behar zuen, eta oroz gainetik begira zezala senarrak ikus ez zezan kordelierretara joaten. Zerbitzaria, bide zuzenenetik joan nahiz, nagusia botiga batean eseririk zegoen kaletik iragan zen. Zalduna, gaztea pasatzen ikusi zuelarik, jalgi egin zen norat zihoan ikusteko; eta zerbitzaria, ohartu zelarik eta guziz harriturik, etxe batean gorde zen. Nagusiak, ibilmolde hura ikusirik, jarraitu egin zion, eta, besotik helduz, ea norat zihoan galdatu zion. Eta haren estakuru hutsak

¹⁶ Hausterre egunez hautsa hartzera, alegia. (I. O.)

¹⁷ Apezak errautsa eskuan hartu eta gurutze bat marratu ohi du eliztarraren bekokian. (I. O.)

¹⁸ Hogeita hamar urte ditu. (I. O.)

ikusiz, eta begitartea lazturik, mehatxu egin zion ongi zafratuko zuela, norat zihoan erraten ez baldin bazion. Gaizo zerbitzariak erran zion:

—Ondikoz, jauna, erraten baldin badizut, nagusi andereak hil egingen nau.

Zaldunak, emaztea beraren gordean traturen batean ote zebilen goganbehartuz, segurtatu zion gazteari ez zuela neholako makurrik ukanen egia erraten baldin bazion, ongi sarizatutako zuela; baina, gezurra erraten bazion, preso sartuko zuela betiko. Zerbitzariak, ongia ukan eta gaizkia ekiditeagatik, guzi-guzia kontatu zion, eta andereak predikariari eskribitu gutunak erakutsi zizkion. Senarra guziz estonaturik eta atsekabeturik gelditu zen, arras segur egon baitzen bere mende guzian emaztearen leialtasunaz, ezen ez baitzuen haren hutsik sekulan ezagutu. Baina, zuhurra zenez, bere kolera disimulatu eta, emaztearen xedeak osoki ezagutzeko, ihardespen bat prestatu zuen, predikariak bere nahikari ona eskertuko balio bezala eginez, eta bere aldetik ez zuela ttipiagoa adieraziz. Zerbitzaria, jaunari zin eginik aferu hura zuhurki maneatutako zuela, anderearengana joan zen gutun faltsutua harturik, eta hain kontent jarri zen emaztea, non senarra ohartu egin baitzen haren bisaiaren mudatzeaz, zeren, Garizumako baruragatik mehatu orde, Garizuma hasterako baino eder eta trenpuanago baitzegoen.

Garizumaren erdian baziren ere, damak ez zion uzten, ez Pasioagatik ez eta Aste Sainduagatik ere, bere fantasia sutsu haren berri predikariari igortzeari ohiko gutunen bidez. Eta iduri zitzaion, predikariak begiak bera zegoen alderat itzultzen zituelarik, edo Jainkoaren amodioaz mintzatzen zelarik, dena berarenganako amodioagatik zela; eta, bere begiez zer pentsatzen zuen adierazterik zeukan guzietan, ez zuen gupidesten. Senarrak huts egin gabe egiten zizkion iduriko ihardespenak. Bazko ondoren eskribitu zion, predikariaren izenean, galdatuz erakutsi ziezaion modua berak isilean ikusi ahal ukan zezan. Damak, berantetsia baitzen, aholkatu zion senarrari kanpoan zituzten lur batzuk ikuskatzera joan zedin; hark hala egingen zuela hitzeman zion, eta lagun baten etxean gorderik gelditu zen. Damak huts egin gabe eskribitu zion predikariari, erranez tenorea zela bera ikustera jin zedin, senarra kanpoan zegoelako. Zalduna, emaztearen bihotza azken bururaino probatu nahiz, predikariarenganat joan zen, Jainkoarren galdatuz bere abitua maileguan eman ziezaion. Predikariak, gizon prestua baitzen, erran zion bere erregelak debekatu egiten ziola, eta deusengatik ere ez ziola abitua utziko maska gisa erabiltzeko. Zaldunak segurtatu zion ez zuela nehola ere makurki erabili nahi, bere onerako eta salbatu ahal izateko behar zuela. Kordelierrak, bai baitzekien hura gizon on eta debotoa zela, utzi egin zion; eta, begitarte osoa estaltzen zion abitu harekin, begiak ere ikusi ezin zitzaizkiola, hartu zituen predikariaren bizar-sudurren idurikoak ziren faltsu batzuk, eta, zapatetan artelazkia jarritz, haren neurriko bilakatu zen. Eta horrela jauntzirik, bere beha debozio handiz goait zeukan emaztearen ganberarat sartu zen arratsean. Zozo gaixo hura ez zen gizona berarengana hel zedin egon, ezpada, tentutik aterea den emazteki bat nola, besarkatzera joan zitzaion tarrapatan. Gizona, zeinak ezagutuko zuten beldur bisaia beheiti baitzeukan, gurutzearen seinalea egiten hasi zen, ihes egiten ziolakoa eginez, eta, tai gabe, hau baizik erraten ez zuela:

—Tentazioa, tentazioa!

Damak erran zion:

—Ondikoz, ene aita, arrazoi duzu, ez baita amodiotik datorkeena baino arrazoi handiagorik, eta hari erremedioa emanen diozula hitzeman didazu; eta, denbora eta aisia dugunez, urrikal zakizkidan otoizten dizut.

Hori erraten ziola fraidea besarkatzera entseatzen zen, eta hark, gurutzearen seinalea nabarmenki eginez ganberaren bazter guzietarik iheska zihoala, oihu eta oihu jarraitzen zuen:

—Tentazioa, tentazioa!

Baina, ikusi zuelarik damak hurbilagoetik heldu nahi ziola, hartu zuen abituaren azpian zeukan makila handi bat eta hain bortizki zafratu zuen, non tentazioak ahantzarazi baitzizkion, eta hori dena emazteak ezagutu ez zuela. Berehala partitu zen gizona handik predikariarengana abitua itzultzerat, eta segurtatu zion bozkarioa ekarri ziola.

Biharamunean, urrunetik zetorrelako alegia eginez, etxerat itzuli zen, eta ohean kausitu zuen emaztea; eta, haren gaitzaz deus ez zekielakoan, zer zuen galdatu zion, eta hark ihardetsi marranta bat zela, eta ezin zela beso-zangoez baliatu. Senarrak, zeina irri egiteko gogo handiz baitzen, biziki atsekabeturik zegoelako itxura egin zuen; eta, alegera zedin, arratsean erran zion predikari on eta saindu hura gomitatu zuela afaltzera. Baina emazteak, bat-batean, erran zion:

—Nehola ere ez, ene maitea, ez da on halako jendea gomitatzea, zeren horiek malurra ekartzen baitute joaten diren etxe guzietara.

—Nolaz, baina, ene maite hori —erran zuen senarrak—, beti laudatu ukan duzu eta! Nihaurek ere uste dut ezen, munduan gizon saindurik baldin bada, bera dela.

Damak ihardetsi zion:

—Onak dira elizan eta predikuan, baina etxeetan antikristoa dituzu. Arren galdatzen dizut, ene laguna, nik ez dezadala ikus, zeren, nagoen bezala, aski bainuke hiltzeko.

Senarrak erran zion:

—Ikusi nahi ez duzunez, ez duzu, ez, ikusiko; baina hemen diot emanen afaria.

—Egizu zure gogara —erran zuen damak—, baina ez dezadala nik ikus, halako jendeak deabrua bezain hastio baititut.

Senarrak, aita on hari afaltzen eman ondoren, erran zion:

—Ene aita, Jainkoaren hain estimu onekotzat zaitut, ezen Hark ez baitizu galdatzen diokezun deus ere ukatuko; horregatik, ene andere gaixoa urrikal dezazun otoizten dizut, bai baitira zortzi egun izpiritu gaizto batek harturik dagoela, halako maneran ezen jendeak oro ausiki eta karramixkatu nahian baitabil. Ez dio kasu emanen ez nehongo gurutzeri ez ur benedikaturi. Badut nik fedea ezen, zuk haren gainean eskua pausatuz gero, deabrua joan egingen dela, eta, horregatik, ene indar guziez galdatzen dizut.

Aita onak erran zuen:

—Ene semea, oro da posible, sinetsiz gero. Fermuki sinesten duzu Jainkoaren nahiak ez duela nehor errefusatzen baldin eta grazia fede onez galdatzen badio?

—Sinesten dut, aita —erran zuen zaldunak.

—Segur zaitetz, orobat —erran zuen kordelierrak—, ezen Hark nahi duen oro ahal duela eta on bezain ahaltsua dela. Goazen, fedean fermu, orroaz ari den lehoi horri buru egiterat, eta erauz diezaiogun harrapakina, zeina Jainkoari atxikia baita haren seme Jesu Kristoren odolari esker.

Hala, zaldunak gizon on hura emaztea ohatze ttipi batean etzanik zegoen lekurat eraman zuen. Emaztea hain inarrosirik zegoen hura ikustean, bera zafratu zuena zela pentsatuz, ezen

kolera bizian sartu baitzen; baina, senarra han berean zenez, begiak behehitu eta mututu egin zen. Erran zion senarrak gizon sailduari:

—Ni aitzinean naizen bizkitartean, deabruak ez du kasik tormentatzen; baina iraitz iezaiozu, ni urundu orduko, ur benedikatua, eta berehala hautemanen duzu izpiritu gaiztoa lanean.

Senarrak fraidea bakarrik utzi zuen emaztearekin eta atal ondoan gelditu zen, zer egiten zuten ikusteko. Damak ikusi zuelarik aita ona baizik ez zela han, oihuka hasi zitzaion, tentutik jauzia den emazteki bat nola, erranez gaiztoa, itsusia, hiltzailea eta tronpatzailea zela. Aita onak, egiazat hartuz izpiritu gaizto batek hartua zuela, burutik heldu nahi ukan zion haren gainean otoitzak egiteko, baina karramixka eta ausikika hasi zitzaion hura, halako moduz non urrunagotik mintzatu behar izan baitzitzaion; eta, ur benedikatua indarrez iraitzen ziola, hainbat otoitz eder egin zuen. Senarrak ikusi zuelarik fraideak egitekoa ongi betea zuela, ganberan sartu eta eskerrak eman zizkion hartuak zituen lanengatik; eta, heldu bezain fite, emazteak utzi egin zion bere irain eta madarikazio haiek errateari, eta gurutzeari pot eman zion leunki, halako jauspena zion senarrari. Baina gizon sailduak, emaztea hain errabiarazia ikusia zuenez, fermuki sinetsi zuen egin otoitzak zirela kari kanporarazia ziola deabrua Gure Jaunak, eta Jainkoa mirakulu harengatik goretsiz joan zen. Senarrak, emaztea bere fantasia zoro harengatik aski larderiata zela ikusirik, ez zion aitortu nahi ukan zer egin zuen, aski baitzuen bere zuhurtziaz haren atxikimendu hura andeatu ukana, eta halako gisaz, non ezinago aiher baitzitzaion orain lehen maite ukan zuen hari. Eta dama, bere erokeria hura higuin, osoki eman zitzaion senarrari eta familiari, lehenago nehoiz ez bezala.

«Istorio honen bidez, ene andereok, jakin ahal ukan duzue senar baten zentzu onaz eta emazteki on baten hauskortasunaz, eta iduri zait, zuhauen indarrez soilik fidatu beharrean, ongi behatzen badiozue ispilu horri, ikasiko duzuela zuen ohorea bere eskuetan daukan Haren baitarat itzultzen».

«Atsegin handia hartu dut —erran zuen Parlamentek— ikusiz damen predikari bihurtu zarela; eta are handiagoa hartuko nuke prediku eder horiek solaskide dituzkezun dama guziei egiten jarraituko bazenu».

«Entzun nahi didazun guzietan —erran zuen Hircanek—, segurtatzen dizut ez dudala gutiago erranen».

«Hots —erran zuen Simontaultek—, zu ez zaudelarik bertzela mintzatuko dela».

«Plazer duena eginen du —erran zuen Parlamentek—, baina pentsatu nahi dut, ene atseginerako, horrela mintzatuko dela beti. Bederen, ekarri digun etsenplua baliagarri izanen zaie amodio izpirituala ez dela batere perilosa uste duten emazteei. Ordea iduri zait perilosagoa dela bertze guziak baino».

«Baina iduri zait —erran zuen Oisillek— ezen gizon prestu, bertutetsu eta Jainkoaren beldur den bat maitatzea ez dela batere gutiestekoa, eta hori estimatu beharra dagoela».

«Anderea —erran zuen Parlamentek—, arren galdatzen dizut sinets dezazun ezen ez dela nehor zozoagorik, engainatzen errazagorik, sekulan maitatu ez duen emazte bat baino. Zeren amodioa berez baita batbedera ohartzera bihotzaz jabetzen den pasioa, eta hain da plazenta pasio hori, ezen, bertuteaz lagundurik baldin badator, hura kapatzat duela, nekez hautemanen baituzu hartatik eragozpenen bat etorri gabe».

«Zein eragozpen etortzen ahal da, bada —erran zuen Oisillek—, gizon prestu bat maitatzetik?».

«Anderea —ihardetsi zuen Parlamentek—, aski gizon badira gizon prestutzat hartu ohi direnak; baina, emazteenganako prestu direnak, haien ohorea eta kontzientzia begiratzen dutenak, ez dut uste bakar bat bera ere kausituko genukeenik egun. Eta, bertzela uste ukanik, gizonez fidatzen diren emakumeak, beren buruak tronpaturik kausitzen dira ororen buru, eta amodio horretan Jainkoaren bidetik sartuak zirenak deabruarenetik jalgitzen dira maiz. Izan ere, anitz ezagutu dut, zeinak, Jainkoaz mintzatzeko estakuruan, sartu baitziren amodio batean, eta hondarrean erretiratu nahirik hasi zirelarik ezin ukan zuten, onestasan estalki hark loturik baitzeuzkan. Zeren biziozko amodio bat berez desegiten baita, eta ezin iraun du bihotz on batean; bertutezko amodioak, ordea, zetazko esteka hain delikatuak ditu, non ohartzerako atrapaturik gelditzen baita bat».

«Hartara —erran zuen Ennasuitek—, emazte batek sekulan ez luke gizon bat maitatu behar. Baina zure legea hain da gogorra, non ez baitu iraunen».

«Ongi dakit hori —erran zuen Parlamentek—, baina ez diot utziko, horregatik, desiratzeari emazte guziak beren senarrez kontent egon daitezen, ni eneaz nagoen bezainbat».

Ennasuitek, ele haiek ukitua sentitu baitzen, kolorez mudatu eta erran zion:

«Uste dukezu emazte ororen bihotza zurea bezalakoa dela, edo, bertzenaz, sinesten duzu bertze guziak baino perfektuagoa zarela».

«Ongi da —erran zuen Parlamentek—, utz ditzagun disputak, eta ea nori ematen dion Hircanek ahotsa».

«Ennasuiteri emanen diot —erran zuen hark—, ene emazteak erran duenaren ordainez».

«Bada, ene aldia denez —erran zuen Ennasuitek—, ez dut gupidetsiko ez gizonik ez emazterik, guziekin berdin jokatzeko. Ongi dakusat ez zaretela gai zuen bihotzetan gizonen bertutea eta ontasuna aitortzeko; hori dela-eta, berriz heltzen diot aitzinekoari, iduriko istorio batekin».

HOGETA HAMASEIGARREN ISTORIAO

Entsalada baten bitartez mendekatu zen Grenobleko presidente bat bere laguntzaile batez, emaztea harekin amorostua baitzitzaion, eta horrela salbatu zuen bere etxearen ohorea.

Bazen, Grenobleko hirian, presidente bat, zeinaren izena ez baitut aipatuko, baina ez zen frantsesa¹⁹. Biziki emazte ederra zuen, eta bake-bakean bizi ziren elkarrekin. Emakume hori, ikusiz senarra zahartua zela, Nicolas izeneko eskribau batekin sartu zen amodiotan. Senarra goizean jauregirat joaten zelarik, Nicolasek ganberan sartu eta haren lekua hartzen zuen. Horretaz ohartu zen presidentearen sehi bat, haren zerbitzu onean egona zena hogeita hamar urtez, eta, nagusiari leial, ezin egon izan zen hari erran gabe. Presidenteak, zuhurra baitzen, ez zion arinki sinetsi nahi ukan, eta erran zion emaztea eta bera hantantzeko gogoz zebilela, eta, kontua, berak erran bezala, egia baldin bazen, ukanen zuela frogatzeko menturarik, baina, frogatzen ez bazion, pentsatuko zuela gezur hura emaztearen eta beraren arteko amodioa hausteko asmatu zuela. Sehiak segurtatu zion ikusaraziko ziola erraten zuen hura. Eta, goiz batez, presidentea gorterat joan eta Nicolas haren ganberan sartu orduko, lankide bat igorri zuen nagusiarengana jin zedin erratera, eta borta ondoan gelditu zen bera, Nicolas jalgiko ote zen beha. Presidenteak, bere zerbitzarietarik batek egin zion keinua ikusi orduko, ongi ezik zegoelakoa egin, gortea utzi eta lehiaz joan zen etxerat, non kausitu baitzuen sehi zaharra bere ganberaren borta ondoan; hark segurtatu zion Nicolas barnean zela, sartu berri. Jaunak erran zion:

—Ez hadi hemendik mugi, ongi dakianez ez baita hau bertze sarbiderik, ez eta bertze jalgibiderik ere ene ganberan, ezpada kabinete ttipi bat, eta hango giltza nihaurek baizik ez baitaukat.

Presidenteak ganberarat sartu zen eta han kausitu zituen emaztea eta Nicolas elkarrekin etzanik, eta eskribaua, atorra hutsik, belauniko jarri zitzaion oinetara eta barkamena galdegin zion: emaztea, berriz, negarrez hasi zen. Orduan, Presidenteak erran zuen:

—Zuhaurek dakizu, anderea, egin duzuen horrek zer merezi duen, baina nik ez dut nahi, zure kariatz, ene etxea desohoratua izatea, ez eta eman dizkidazun alabek erreka jotzerik ere. Horregatik —erran zuen—, manatzen dizut ez egiteko negar gehiago, eta entzuteko zer eginen dudan; eta zu, Nicolas, gorde zaitetz ene kabinetean, eta ez egin neholako azantzik.

Gizona gorde zenean, presidenteak borta zabaldu eta sehi zaharra deitu zuen, eta honela erran zion:

—Ez didak hik segurtatu erakutsiko hidala Nicolas eta ene emaztea elkarrekin zirela hemen? Eta hire hitzari fida sartu nauk ni hona, ene emazte gaixoa hiltzeko arriskuz, eta ez diat hik erraniko deus kausitu. Denetan ibili nauk bila ganberan, orain erakutsiko diat.

Eta, hori erranik, miarazi zion sehiari ohatzeen azpian eta xoko orotan. Eta deus kausitu ez zuelarik, estonaturik guziz, erran zion hark nagusiari:

¹⁹ Geoffroy Carles dateke, Turineko senatuaren buru eta Grenobleko parlamentuko lehen presidentea izan zena, 1493tik aurrera (Grenobleko parlamentua XVI. mende hasieran Frantzian ziren sei parlamentuetako bat zen). Saluzzoko markeserrian jaioa, piemontetarra zen (Frantzisko I.ak okupatua zuen garai hartan Piemonterren ipar aldea). (I. O.)

—Deabruak eramanen zuen, zeren nik ikusi baitut hemen sartzen, eta bortatik ez da jalgi. Baina ikusi dakusat ez dela hemen.

Orduan, nagusiak erran zion:

—Ai ene zerbitzari dohakabe hori, emaztea eta biok hasandu nahi ukan gaituk modu honetan! Horregatik, hemendik partitzeko baimena emanen diat, eta, egin didaan zerbitzu ororengatik, zor diadana eta gehiago pagatu nahi diat. Baina hoa, arin eta zalu, eta begira hadi hogeita lau oren barne hiri honetan egoteaz.

Egin zizkion presidenteak heldu ziren urteetako bospasei pagamendu, eta, jakinik leiala zela, bertze zerbait ere ematea pentsatu zuen. Zerbitzaria partitu zelarik negarretan, Nicolas jalgiarazi zuen bere kabinetetik presidenteak, eta, erranik emazteari eta hari zer iduri zitzaion egin zuten gaiztakeria, debekatu zien nehoi deus erratea, eta manatu zion emazteari ohi baino dotoreago apaintzeko eta joateko besta, dantzaldi eta batzar orotara, eta Nicolasi egiteko asealdi handiagoak ordu artekoak baino, baina berak beharrrat “Aire!” erran orduko, hobe zuela hirian hiru oren gehiago ez ematea. Eta hori eginik, jauregirat itzuli zen, deus agitu ez balitz bezala eginez. Eta hamabortz egunez, bere ohidurak hautsiz, lagunak eta auzoak bestatzen ibili zen. Eta oturuntzaren ondotik danbolin-joileak ekartzen zituen damak dantzarazteko. Egun batean, ikusi zuen emaztea ez zela dantzan ari batere, eta galdatu zion Nicolasi atera zezan, eta hark, presidenteak iraganeko hobenak ahantzirik zeuzkalakoan, bozkario handiz jalgiarazi zuen dama dantzara. Baina, dantza bukatu orduko, Presidenteak, etxeko lanen bat manatzen ziolako itxura eginez, erran zion beharrrat:

—Hoa hemendik, eta ez itzuli sekulan!

Hala joan zen Nicolas, dama utzi beharrrak samurturik, baina orobat lorios bizia salbatu zuelako. Eta presidenteak, zabaldua zuelarik emazteari zion amodioaren handia ahaide, adiskide eta herrialdeko jende ororen artean, maiatzeko egun eder batean jalgi zen baratzerat eta bildu zituen entsalada bat egiteko belar batzuk; emazteak, belar haiek jan eta ez zuen hogeita lau ordu ere iraun. Gero, halako dolu itxurak egin zituen gizonak, ezen nehork ere ezin baitzuen usnatu ere egin heriotza haren gibelean bera zegoenik; eta hala, etsaiaz mendekatu zen eta bere etxearen ohorea salbatu zuen.

«Honen bidez ez nuke nahi, ene andereok, presidentearen kontzientzia laudatu, ezpada, entzun ongi, emazte baten arinkeria eta gizon baten pazientzia eta zuhurtzia handiak erakutsi; eta arren galdatzen dizuet, ene andereok, ez zaitzete sumin, zeren egia, batzuetan, gizonen kontra bezain ongi mintzatzen baita zuen aitzia. Eta bizioak eta bertuteak berdin dira gizonen zein emazteen baitan».

«Beren sehiak maite ukan dituzten emazte guziek halako entsaladak jan behar balituzte —erran zuen Parlamentek—, ezagutzen ditut batzuk beren baratzeak artatu ohi dituzten bezain ongi artatuko ez lituzketenak, eta errotik aterako lituzkete belarrak oro, ama zoro baten heriotzaz leinuari ohorea itzuliko liokeen hura haztea ekiditeagatik».

Hircanek, ongi baitzekien zergatik zioen Parlamentek hori, hiraz ihardetsi zuen:

«Emazte prestu batek ez luke nehoiz bertze bat jujatu beharko berak egin nahi ez lukeen zerbaiten kariaz».

Parlamentek ihardetsi zuen:

«Jakitatea ez da jujamendua eta ergelkeria. Baina emazte hark anitzek merezi duten gaztigua pairatu zuen, eta iduri zait ezen senarrak, mendekua hartu nahi baitzuen, zuhurtzia eta jakitate handiz jokatu zuela».

«Bai eta malezia handi eta mendeku egarri luze eta krudel batez ere —erran zuen Longarinek—, argi erakutsi baitzuen ez zeukala begien aitzinean ez Jainkorik ez eta kontzientziarik ere».

«Eta zer nahi zenuen, bada, gizon hark egitea —erran zuen Hircanek—, emazte batek gizon bati egiten ahal dion laidorik handiena mendekatzeko?».

«Bada nik nahiago nukeen furia hartan hil ukan balu —erran zuen damak—, zeren doktoreek diote halako bekatuak barkagarriak direla, lehen higialdiak ez baitaude pertsonaren baitan; horregatik, grazia erdietsi ahal ukanen zukeen».

«Bai —erran zuen Geburonek—, baina haren alabek eta ondokoek betiko eramanen zuketan tatxa hori».

«Ez zukeen hil behar —erran zuen Longarinek—, zeren, haren furia handi hura iraungia zenez, emaztea oneski bizi izanen baitzatekeen berarekin, eta gertatu zena ez zatekeen gehiago gogoratuko».

«Uste duzu sosegatua zela —erran zuen Saffredentek—, bere kolera disimulatuagatik? Ene iduriko, entsalada prestatu zuen azken egun hartan lehen egunean bezain samurrik zegoen gizon hura, zeren batzuen baitan lehenbiziko bultek ez baitute etenik harik eta beren pasioak egikaritzen dituzten arte; eta plazer handia ematen dit teologoek bekatu hauek barkagarriak direla irizteak, nihaur ere iritzi horretakoa bainazue».

«Eleei ongi behatzea komeni da —erran zuen Parlamentek—, zuek bezain perilosak diren jendeen aitzinean; baina nik erran dudana pasioa biziki azkarra den kasuetarako entelegatu behar da, hain azkarra non zentzuak oro hartzen baititu, arrazoia lekurik gabe utziz».

«Zuk erran bezala, nihaurek ere uste dut —erran zuen Saffredentek— ezen, gizon arras amorostu batek, egiten duena egiten duela, ezin duela bekatu egin, ezpada benialki; zeren segur bainaiz ezen, amodioak atxikirik badauka osoki, arrazoia ez duela entzunen ez haren gorputzak ez eta haren enteleguak ere. Eta, egia erraten badugu, ez da gure artean nehor halako eromen bortizik sentitu ez duenik, eta pentsatzen dut ez dela soilik aise barkatzekoa, ezpada, gainera, Jainkoa ez dela samurtzen halako bekatu batengatik, ikusiz bere amodio betera heltzeko maila bat dela; izan ere, nehor ez da sekulan haraino heldu, aitzinago mundu honetako amodioaren zurubitik igo gabe. Zeren, Jondoni Joanek erraten duen bezala: “Nolaz maite ukanen duzu Jainkoa, ikusten ez duzuna, ikusten duzuna maite ez baldin baduzu?”²⁰».

«Ez dago Eskrituran pasarte ederrik zure fabore ekartzen ez duzunik —erran zuen Oisillek—. Baina begira zait ez jakin on oro pozoi bihurtzen duen armiarmak bezala egitetik. Kontu egizu perilosa dela Eskriturak xederik eta beharrik gabe aipatzea!».

«Egia erratea xederik eta beharrik gabe aritzea dela diozu? —erran zuen Saffredentek—. Hortaz, erran nahi duzu ezen zuei, dama sinesgogor horiei, mintzatzean, Jainkoarengat laguntza galdez jotzen dugularik, alferretan darabilgula Haren izena; baina, bekatu baldin bada, zuhauena soilik izan behar du gaztiguak, zeren zuen sinesgogortasunak behartzen

²⁰ Joanen lehen gutuna 4, 20: «Jainkoa maite dut» esan eta senideari gorroto diona gezurti da; izan ere, ikusten duen senidea maite ez duenak ezin du maite ikusten ez duen Jainkoa. (I. O.)

baikatu gu diren juramentuak oro xerkatzera. Eta, bizkitartean, ezin dugu karitatearen garra irazeki zuen izotzezko bihotzetan».

«Denak gezurrez ari zireten seinale —erran zuen Longarinek—, zeren, zuen mintzoan egia balego, hain da hura azkarra, ezen sinesgarri bihurtuko baitzintuzkete. Baina bada perilik Evaren alabek aiseegi sinets diezaioten suge horri²¹».

«Argi dakusat, Parlamente —erran zuen Saffredentek—, emazteak ezin garaituzkoak direla gizonendako. Horregatik, isildu egingen naiz, eta ea Ennasuitek nori ematen dion hitza».

«Dagoucini emanen diot —erran zuen Ennasuitek—, ez baitut uste emazteen kontra mintzatu nahiko duenik».

«Jainkoak nahiko ahal du —erran zuen Dagoucinek— emazteok ene alde egitea ni haien fabore mintzatuko naizen hainbat! Eta, zuei erakusteagatik ezen dama bertutetsuak ohoratzera entseatu naizela, haien obra onak gogora ekarriz, halako istorio bat kontatuko dizuet. Eta ez nuke ukatu nahi, ene andereok, Iruñeko zaldunaren eta Grenobleko presidentearen pazientzia handia izan denik, baina mendekua ere ez da ttipiagoa izan. Eta gizon bertutetsu bat goretsi behar delarik, ez da kontua bertute bakar bat laudatzea bizio handi baten estalki egiteraino, zeren gizon bat goresgarria baita bertutezko obrak bertutearen amodioagatik beragatik soilik egiten dituenen; eta hala ikusarazi nahi nizueke dama baten pazientzia bertutezkoaren bidez ere, hark ez baitzuen bertze xederik ukan bere obra on orotan, ezpada Jainkoaren ohorea eta senarraren salbamendua baizik».

²¹ Agerikoa dirudi, eta hala proposatzen dute testua ongi aztertu dutenek, ihardespren hori Parlamenteri dagokiola (eta ez Longarineri), eta hari erantzuten dio segidan Saffredentek. (I. O.)

HOGEITA HAMAZAZPIGARREN ISTORIOA

Loué-ko andereak²², pazientzia handiz eta luzaz igurikiz, hain ongi bereganatu zuen senarra, ezen bizimolde makurretik apartatu baitzuen, eta handik harat lehenago baino amodio handiagoan bizi izan ziren biak.

Bazen dama bat Louéko etxean, hain zuhur eta bertutetsua, non auzo guziek maite eta estimatzen baitzuten. Haren senarra, behar den bezala, fida zen emazteaz afera orotan, biziki zentzu onez eramaten baitzituen, halako moduan, non haien etxea, haren bidez, Anjou eta Turenako herrialdeetan izan zen etxerik aberatsen eta ongien hornituetarik izan baitzen. Senarrarekin modu horretan luzaz bizi izan zelarik, eta harengandik zenbait seme-alaba eder ukanik, zoriona, zeinari beti kontrakoa jarraitzen baitzaio, ttipitzen hasi zen, zeren senarrak, halako pausu onestean etsi ezinik, bertzelako zereginen xerka hasi eta abandonatu egin baitzuen. Eta emaztea lokartzen zen orduko, haren ondotik altxatu eta joateko kostuma hartu zuen, eta goizaldera arte ez zen berriz itzultzen. Louéko andereak ez zuen eginmolde hura maite, eta, hala, adierazi nahi ez zuen bekaizgoz beterik, alde baterat largatu zituen etxeko lanak, bere burua eta familia, nola bere lanen fruitu duen senarraren amodio handia galdu duenak, hura atxikitzeke ez baitzen gogo onez jasanen ez zukeen nekerik. Baina ongi zekusanez galdua zuela, hain ezaxolaki utzi zituen etxea eta gainerakoak, ezen laster ikusi baitzen ezaxola hark sortu kaltea, zeren, alde batetik, senarrak neurrigabe xahutzen baitzuen eta, bertzetik, hark ez baitzuen etxekoen menaiua behar bezala erabiltzen, halako manieraz, non etxea berehala gelditu baitzen biziki egoera txarrean, eta egur mozten eta lurak bahian ematen hasi beharra ukan zuten. Ahaideetarik batek, ezagun baitzuen eritasun hura, egiten ari zen hutsa ikusarazi zion, eta erran zion ezen, senarraren amodioak ez bazion etxearen ongia estimarazten, begira zezala gutienik bere gaizo umeengatik, eta haienganako urrikalmenduak zuen bere baitaratu eta ahal guziak eginarazi zizkion senarraren amodioa berriz kobratzeko. Eta egun batean zelatatu egin zuen bere ondotik altxatzen zelarik, eta bera ere gaueko soingainekoa hartu eta altxatu egin zen, ohatzea eginarazi eta, orenak erraten zituela²³, senarra noiz itzuliko gelditu zen; hura sartu zelarik, haren aitzinerat jin eta pot eman zion, eta urez bete bazin bat eman zion eskuak garbitzeko. Hark, estonaturik ibilmolde berri hartaz, erran zion ezen komunetik baizik ez zetorrela eta horretarako ez zuela jaikitzen ibili behar. Eta horri emazteak ihardetsi zion ezen, gauza handia ez bazen ere, egokia zela eskuak garbitzea leku satsu eta likits batetik jitean, adierazi eta gaitzetsi nahian modu hartan gizonaren bizimolde gaiztoa. Alabaina, gizona bereari jarraiki zitzaion, eta damak urtebete luze eman zuen zeregin hartan. Eta ikusi zuelarik eginmodu hark ez ziola deusetarako balio, egun batez, ohi baino luzazago zegoelarik senarraren beha, haren xerka joateko desira ukan zuen, eta, ganberaz ganbera hasi zelarik, han kausitu zuen gibekeko kabinete batean, etxean zen ganberazainik itsusi, satsu eta likitsenarekin etzanik. Orduan pentsatu zuen erakutsiko ziola berak halako emazte onestaren orde satsu eta likits bat hartzen, eta lastoa hartu eta su eman zion ganberaren erdian; baina ikusi zuelarik keak senarra hil eginen zuela iratzarri aitzin, besotik tiratu zion, “Sua, sua!” oihukatuz. Senarra, halako emazteki onestak urde harekin kausitu

²² Louéko jaurerria (Sarthe-n, Le Mans-etik gertu) Montmorency-ko ahaide ziren Laval etxekoei zegokien garai hartan. (I. O.)

²³ Oren edo ordu kanonikoak egunean zehar ordu jakin batzuetan egin behar izaten diren otoitzak dira: matutiak, bezperak, konpletak eta abar. (I. O.)

zuelarik, ahalketurik eta haserre zegoen, ez motiborik gabe, naski. Orduan, emazteak erran zion:

—Jauna, goxoki eta pazientzia handiz entseatu naiz urtebetez zu malur horretatik hastantzera, eta erakustera kanpo aldetik garbituz barne aldea garbitu beharko zenukeela; baina, ikusi dudalarik egiten nuen guzia alfer-alferrik zela, oro finiarazten duen elementuaz baliatuz egin dut ahalegina, eta segurtatzen dizut, jauna, honek zentzutzen ez baldin bazaitu, ez dakidala bigarren aldiz aldaratuko zintuzkedan periletik oraingoan egin dudan moduan. Arren galdatzen dizut pentsa dezazun ezen ez dela etsimendu handiagorik amodioarena baino, eta, Jainkoa begien aitzin ukan ez banu, ez nukeela egin dudan hori jasan ahal ukanen.

Senarrak, hain aise libratu zela ikusirik, hitzeman zion ez ziola sekulan motiborik emanen berarengatik tormentatzeko, eta damak gogo onez sinetsi zion, eta, haren onespenez, etxetik kasatu zuen halako nahigabea ekarri zion emakumea. Eta handik harat amodio onean bizi izan ziren elkarrekin, halako moduan, non iraganeko hutsek ere bozkario handiagoa ematen baitzieten, ekarria zieten ongiagatik.

«Arren galdatzen dizuet, ene andereok, Jainkoak halako senarrik eman baliezazue, ez dezazuen etsi harik eta hura zentzarazteko bideak oro luzaz entseatu arte, egunak hogeita lau ordu baititu zeinetan gizon batek aldatzen ahal baitu bere iritzia, eta emazte batek urosago egon behar du senarra pazientziaz eta igurikatze luzez bereganatzeagatik ezen ez eta gurasoek perfektuago bat eman diotelako».

«Horra etsenplu bat —erran zuen Oisillek—, emazte ezkondu guziendako baliagarria».

«Har dezala etsenplu hori nahi duenak —erran zuen Parlamentek—, baina, nitaz denaz bezainbatean, ez nuke halako pazientziarik ukaiten ahal, zerren, pazientzia bertute eder bat baldin bada ere edozein egoeratan, ene iduriko, ezkontzan aiherra ekarri ohi baitio kidearen laidoa pairatuz harengandik ahalik eta gehien aldaratzera beharturik denari, eta aiherkunde horretatik etorri ohi da desleialaren hutsa mespretxatzea; eta mespretxu horretan, amodioa ttipituz doa gutika-gutika, gauza bat gehiago maitatzen baita zenbat eta gehiago estimatu haren balioa».

«Baina bada peril —erran zuen Ennasuitek— pazientzia gutiko emazteak senar furios bat kausi dezan, eta hark oinazea emanen lioke ezen ez pazientzia».

«Eta zer egin lezake, bada, senar batek —erran zuen Parlamentek—, ez baldin bada istorio honetakoak egin duena?».

«Zer? —erran zuen Ennasuitek—; bada ederki zafratu emaztea, eta ohexkan etzanarazi²⁴, ohatze handia maite duen hari emanez».

«Ene iduriz —erran zuen Parlamentek—, emazte on bat ez luke samurtuko furiaz zafratua izateak batere balio ez duen batengatik mespretxatua izateak bezainbat, eta, halako amodio batetik hastandua izateak sortu mina jasan eta gero, senarrak ez luke hura gehiago atsekabetzeko deus egiten ahal. Eta istorioan dio orobat ezen senarra zentzarazteko hartu zuen nekea seme-alabendako zuen amodioagatik izan zela, eta hala uste duk nik ere».

«Eta iduritzen zaizue pazientzia handia ukaitea dela —erran zuen Nomerfidek— senarra lotan zetzan ohe azpian su ematea?».

²⁴ Nagusien ganberan, ohatze handiaz gain ohexka bat egon ohi zen zerbitzariarentzat. (I. O.)

«Bai —erran zuen Longarinek—, zeren kea ikusi orduko iratzarri egin zuen, eta agian horretan zuen ukan emazteak hobetik handiena, halako senarren errautsak on baitirateke lixiba egiteko²⁵».

«Krudela zara, Longarine —erran zion Oisillek—; baina zu ez zara modu horretan bizi izan zure senarrarekin».

«Ez —erran zuen Longarinek—, zeren, Jainkoari esker, bizi osoan haren ments ukaiteko motiboa baizik ez dit eman, eta ez pleinitzeko».

«Eta halakorik ukan bazenu —erran zuen Nomerfidek—, zer egingen zenukeen?».

«Hainbertze maite nuen —erran zuen Longarinek—, ezen bera hil eta, gero, ene burua hilen bainukeen, zeren, halako mendeku baten ondoren, laketago bainuke hiltzea desleial batekin leialki bizitzea baino».

«Ikusten dudanez —erran zuen Hircanek—, senarrak zuhauen buruengatik baizik ez dituzue maite. Laket zaizkizuelarik, ongi maite dituzue; baina munduko hutsik ttipiena eginez gero, aste guziko lana galdua dukete larunbat batekoagatik. Horrela, nagusi izan nahi duzue, eta nihaur akort naiz horrekin, baina betiere bertze senar guziak akort baldin badira».

«Arrazoizkoa da gizona gure nagusia izan dadin²⁶ —erran zuen Parlamentek—, baina ez abandona gaitzan edo gaizki trata gaitzan²⁷».

«Jainkoak halako ordena ezarri du gizonaren zein emakumearen baitan —erran zuen Oisillek—, ezen, abusatzen ez bada, ezkontza dateke, ene iduriko, munduan den estaturik eder eta segurena, eta segur naiz ezen hemen diren guziak, egiten duten itxura egiten dutela, hala pentsatzen dutela. Eta, gizona emakumea baino zuhurragoa dela erraten denez, larderia handiagoz gaitzetsia izanen da hobena harena baldin bada; baina, aski mintzatu garenez honetaz, ikus dezagun nori ematen dion hitza Dagoucinek».

«Longarineri ematen diot —erran zuen hark».

«Plazer handia ematen didazu —erran zuen Longarinek—, zeren badut istorio bat zureari jarraipena emateko modukoa. Damen pazientzia bertutetsua laudatzen ari garenez, arestian aipatu horrena baino are laudagarriagoa den bat erakutsiko dizuet, eta estimagarriagoa da, gainera, hiriko emazte bat zelako²⁸, haiek ez baitira hezi ohi bertzeak bezain modu bertutetsuan».

²⁵ Errautsaz egin ohi zen lixiba, zeina arropa, izarak eta abar garbitu eta zuritzeko isurkaria baitzen. (I. O.)

²⁶ Paulok korintoarrei eginiko 1. gutunetik (11, 3): “Baina nahi nuke zuek jakitea, gizon oroien buru Kristo dela, emakumearen buru gizona, eta Kristoren buru Jainkoa”. Edo kolosarrei eginikotik (3, 18): “Emazteok, izan senarren menpeko...”. Edo efesoarrei eginikotik (5, 22): “Emazteak izan daitezela beren senarren menpeko...”. (I. O.)

²⁷ Paulok betebeharren elkarrekikotasuna ere azpimarratzen du, korintoarrei eginiko 1. gutunean (7, 3 eta 4): “Eman biezaio senarrak emazteari zor diona, eta berdin emazteak senarrari. Emaztea ez da bere buruaren jabe, senarra baizik, ezta senarra ere berearen jabe, emaztea baizik”. (I. O.)

²⁸ Hirikoa eta ez landa eremukoa; edo hiriko burgesa, ez goi mailako gizartekoa. (I. O.)

HOGEITA HEMEZORTZIGARREN ISTORIOA

Tours-en bizi zen andere batek hainbat on itzuli zion senarrari hark eman tratu txarren ordainez, non senarrak amorantea (neholako asaldurik gabe artatzen zuena) utzi eta emaztearen baitarat itzuli baitzen.

Bazen Tourseko hirian emakume eder eta onest bat, hain bertutetsua, non, senarrak hura maite eta errespetatu ez ezik, haren beldurrean bizi baitzen. Hala ere, ogi ona jateaz gogoetsirik diren gizonen ahuleziaz, lur maizter²⁹ batez amorostu zen. Eta usu joaten zen Toursetik maizterrarenganat, eta harenean gelditzen bizpahiru egunez; eta Tourserat itzultzen zelarik hain zegoen hotzak hila, non gaizo emazteak lanak ukaitzen baitzituen hura oneratzeko. Eta ontsatu bezain laster, han partitzen zen berriz huts egin gabe, plazerak gaitzak oro ahantzarazten zizkion lekurat. Emaztea, haren bizia eta osasuna maite baitzituen gehienbat, ikusiz halako egoera makurrean itzuli ohi zela, maizterraren baitarat joan zen, eta han kausitu zuen senarrak maite zuen emazte gaztea, zeinari, hirarik gabe baina kuraia grazios batez, erran baitzion ezen ongi zekiela senarra usu jiten zitzaiola bisitan, baina ez zegoela bera kontent zein gaizki tratatzen zuen ikusirik, hotzak hila etxeratzen baitzen beti. Emakume gaixoak, damaganako errespetuz zein egiaren indarrez, ezin ukan zion deus ukatu, eta barkamendua galdatu zion. Damak emakumea gizonarekin oheratzen zen ganbera ikusi nahi ukan zuen, eta, hain hotz eta lohi kausitu zuen, ezen urrikaldu egin baitzen. Berehala manatu zuen ohatze on bat ekar zezaten, mihisez eta goatadun estalkiz hornitua, senarrak gogoko zuen modukoa; ganbera, beharreko guziez hornitu eta tapizarazi zuen, eta baxera egokiak eman zizkion jate- edateak zerbitza ziezazkion; dupa ardo on bat, gozagailuak eta konfiturak; eta arren galdatu zion maizterrari ez zezan gehiago igor senarra hain egoera makurrean. Luze gabe itzuli zen senarra, ohi zuen gisan, maizterra ikusterat, eta guziz xoraturik gelditu zen haren egongia pobre hura hain ongi bildurik ikusirik, eta areago emakumeak edaterat eman zionean zilarrezko ontzi batean; eta galdetu zion nondik etorriak ziren gauza on haiek guziak. Gaizo emakumeak, negarrez, erran zion ezen haren emaztea izan zela, zeinak, urrikaldurik ematen zion tratu txarragatik, horrela hornitu baitzion etxea, eta galdatu baitzion arta ukan zezan beraren osasunaz. Gizonak, ikusiz emaztearen onezia handia, eta, berak halako makurkeriak eginagatik, hainbertze on itzultzen ziola, pentsatu zuen ezen bere hobena emaztearen egite ona bezain handia zela; eta, maizterrari sos batzuk eman ondoren, galdatu zion etorkizunean emakume onest gisa bizi zedin, eta bera emaztearenganat itzuli zen, zeinari egin makurra aitortu baitzion. Orobat erran zion halako gozotasunik eta oneziarik gabe ezinezkoa izan zatekeela berak zeraman bizimoldeari sekulan uztea, eta handik aitzina bake onean bizi izan ziren biak, iraganeko bizimoldea osoki utziz.

«Sinets ezazue, ene andereok, ez direla emazte baten pazientziak eta amodioak luzera bentzutu ezin dituen senar anitz, non eta ez diren harri bat baino gogorragoak, zeina, halere, ur indargabe eta beratzak, denboraren denboraz, zilatu egiten baitu».

Parlamentek erran zuen:

²⁹ Beste norbaitenak diren lurak lantzen dituen laboraria, eta jabeari ekoizten duenaren parte batez ordaintzen diona. (I. O.)

«Horra emakume bat, ez bihotzik, ez behazunik eta ez gibelik ez duena³⁰».

«Zer nahi zenuen egitea? —erran zuen Longarinek—: Jainkoaren manua betetzen ari zen, kalte egiten digunari on egitea».

«Ene iduriko —erran zuen Hircanek—, emazte hori kordelieren batekin amorosturik zatekeen, zeinak penitentziatzat jarri ziokeen senarra landaguneetan ongi tratatua izan zedin entseatzea, eta hala, hura kanpoan zelarik, ukanen zukeen parada fraidea ongi tratatzeko hirian!».

«Hara —erran zuen Oisillek—, hor uzten duzu agerian bihotzean daukazun gaiztakeria: egite on batetik jujamendu gaizto bat duzu sortzen. Baina nik uste dut areago dela ezen emaztea hain zegoela Jainkoaren amodioan mortifikaturik, non senarraren arimaren osasunaz baizik ez baitzen arrangurutzen».

«Iduri zait —erran zuen Simontaultek— ezen arrazoi gehiago zuela emaztearengat itzultzeko maizterrearenean hotzetan zegoelarik ezen ez ongi tratatua zelarik».

«Ikusten dudanez —erran zuen Saffredentek—, ez zara zu Pariseko gizon aberats haren iritzi berekoa, zeinak, emaztearekin oheraturik zela, ezin baitzituen bere beztimendak largatu, hotzak hiltzen sentitu gabe; baina ganberazaina ikustera sotorat joaten zelarik, ez buruko eta ez oinetako, eta neguaren minean, ez zen sekulan gaizki sentitzen; eta hori emaztea biziki ederra eta ganberazaina biziki itsusia zela».

«Ez duzu zuk entzun —erran zuen Geburonek— Jainkoak beti laguntzen dituela eroak, amorosak eta hordiak? Hirurak batean izanen zen, agian, hura».

«Horrekin erran nahi zenuke Jainkoak kalte egiten diela zuhurrei, xahuei eta neurritsuei —erran zuen Parlamentek—? Beren buruak laguntzeko gai direnek ez dute laguntza beharrik. Zeren, eriengatik etorria zela ezen ez osasuntsuengatik erran zuen Hura³¹, gure ahuleziak sokorritzera zen etorri bere urrikalmenduaren legeaz, indargabe utziz horrela bere justiziaren manu zorrotzak; eta bere burua zuhurtzat duena eroa da Jainkoaren aitzinean. Baina, gure predikua finitzeko, nori emanen dio hitza Longarinek».

«Saffredenti emanen diot —erran zuen hark».

«Espero dut, bada —erran zuen Saffredentek—, zuei erakustea, etsenplu baten bidez, Jainkoak ez dituela amorosak faboratzen, zeren eta erran bada ere, ene andereok, bizioa berdin egoten dela emazte zein gizonen baitan, hala ere, aiseago eta sotilkiago asmatuko du finezia bat emazte batek gizon batek baino; eta emanen dizuet orain halako etsenplu bat».

³⁰ Antzinarokoentzat, bihotzetik (*thumos*) eta gibeletik datoz pasioak. Behazunak edo gibelminak, berriz, samindura adierazten du: behazunik ez duenak ez du aiherkunderik, ez du mendeku goserik. (I. O.)

³¹ Lukas 5, 31-32: “Ez dira osagarrian direnak mediku beharretan, baizik eriak”. (I. O.)

HOGETA HEMERETZIGARREN ISTORIAO

Grignaulx-eko jaunak bere etxea libratu zuen emaztea tormentatzen zuen izpiritu batez, halako maneran tormentatu, non etxetik aldaratu behar ukan baitzuen bi urtez.

Grignaulxeko jaun batek³², zeina Anne Frantziako erregina, Britainiako dukesaren ohorezko zalduna baitzen, kanpoan bi urtez baino gehiago izan ondoren etxerat itzuli zelarik, kausitu zuen ezen emaztea hurbileko bertze lurralde batean zela; eta motiboaz galdatu ziolarik, erran zion hark behin eta berriz agertzen zela etxean izpiritu bat³³, eta halako moduan tormentatzen zituela, ezen nehor ere ezin baitzen han egon. Grignaulxeko jaunak, ez baitzuen halako tetelekeriarik sinesten, erran zion ezen, deabrua bera izanik ere, ez litzatekeela bera beldur izanen; eta etxerat ekarri zuen emaztea. Gauean, hainbat kandela pitzarazi zuen, izpiritu hura argiago ikusi ahal ukaiteko. Eta, atzarririk eta deus entzun gabe luzaz egon ondoren, loak hartu zuen; baina berehala iratzarri zuen mazelan hartu zuen zaflako batek, eta boz bat entzun zuen oihuka: “Brenigne, Brenigne”, zeina bere amaso zena baitzen³⁴. Orduan, ondoan lotan zetzan ganberazaina deitu zuen, kandela pitz zezan, oro iraungiak baitziren, baina hura ez zen ausartu jaikitzerat. Berehala, Grignaulxeko jaunak gainean zuen estalkia kentzen ziotela sentitu zuen, eta ganberan erortzen ari ziren mahai, xibalet eta aulki azantz handi bat aditu zuen, eguna argitu arte iraun zuena. Baina Grignaulxeko jauna samurtuago zegoen deskantsua galtzeagatik izpirituaren beldurrez baino, sekulan ez baitzuen halakorik bazenik sinetsi. Eta hurrengo gauean, izpiritua harrapatzera deliberatu zen. Eta, oheratu eta gutira, zurrunga handia egiten zuelako itxuran hasi zen, eta eskua bisaia ondoan jarri zuen zabal-zabalik. Eta hala, izpirituaren beha zegoela, hurbil zuen zerbait sentitu zuen, eta are zurrunga handiagoan hasi zen. Izpiritua orduan, hainbertze fidatu zen, ezen mazelako eder bat eman baitzion. Eta istantean, bisaia gainean zuen eskuari heldu zion Grignaulx jaun hark, emazteari oihu egiten ziola:

—Atxiki dut izpiritua.

Eta emaztea berehala jaiki zen eta piztu zuen kandela bat, eta ikusi zuten ber ganberan lo egiten zuen neskato ganberazaina zela, zeinak, belauniko, galdatu zien barkatzeko, eta hitzeman zien aitortuko zuela egia, hots, etxeko sehi bati aspaldidanik zion amodioak eraginik ekin ziola halako misterio ederra egiteari, jaun-andereak etxetik aldaratu eta, hala, bi-biek, beren gain harturik etxearen zaingo osoa, ukan zezaten asealdi on bat egiteko parada, biak bakarrik zeudelarik egin ohi zuten gisan. Grignaulxeko jaunak, bortitz samarra baitzen, izpirituaz sekulan ez ahanzteko moduan zafra zitzaten manatu zuen; hala egin zen, eta kanporat kasatu zituzten gero. Eta hala libratu zuten etxea bi urtez beren egitekoa han ukan zuten izpirituen tormentutik.

«Liluragarria da, ene andereok, pentsatzea zein gibelondo dituzkeen Amodio jainko ahaltso horrek, zeinak, emazteei beldur oro kenduz, irakasten baitie gizona zernahi

³² Grignaulx hori, egun, Dordoinako departamenduko Grignols da. Grignaulxeko jauna Jean de Talleyrand izan zen, Bordeleko auzapez, eta gero Karlos VIII.aren txanbelan edo ganberazain eta Ana Britainiakoaren lehen etxezain eta ohorezko zaldun. (I. O.)

³³ Arima herratu bat. (I. O.)

³⁴ Jaunaren amatxiren izena Bernicque edo Revigne zen. (I. O.)

eginarazten, beren asmoak erdiesteko. Baina, ganberazainaren asmoa erasiagarria bada ere, hainbat da laudagarria nagusiaren zentzu ona, ongi baitzekien hark izpiritua behin partituz gero ez zela berriz itzuliko».

«Egiazki —erran zuen Geburonek—, Amodiok ez zuen sehiaren eta ganberazainaren fabore jokatu orduko hartan; eta aitor dut nagusiari biziki baliagarri gertatu zitzaiola bere zentzu ona».

«Hala ere —erran zuen Ennasuitek—, ganberazaina luzaz bizi izan zen bozkariotan, bere fineziari esker».

«Ondikozko bozkarioa duzu hori —erran zuen Oisillek—, baldin bekatuaren gainean funtsatua eta gatziguaren ahalkeaz finitzen dena bada».

«Egia diozu, ene anderea —erran zuen Ennasuitek—, baina badira anitz jende saminean eta nekean egon behar dutenak zuzen den bezala bizi ahal izateko, zeinek beren bizitzetan ez baitute nehoiz ukan harako haiek bezainbateko plazerik ukaiteko asmorik».

«Ene iduriz —erran zuen Oisillek—, ez da plazer beterik, kontzientzia bakean ez baldin bada».

«Nolaz? —erran zuen Simontaultek—: italiarrek diote ezen zenbat eta handiagoa izan bekatua, hainbat eta handiagoa dela plazera³⁵».

«Egiazki, halako elea asmatu duena —erran zuen Oisillek—, bera duzu zinez deabrua; eta utz dezagun hor, ea nori ematen dion Saffredentek hitza».

«Nori? —erran zuen—. Parlamente baizik ez da gelditzen bere lekua hartu gabe, baina, bertze ehun geldituko balira ere, hari emanen nioke hitza betiere, harengandik baitugu guk zer ikasirik franko».

«Beraz, nihauri dagokidanez egunari fina ematea —erran zuen Parlamentek—, eta atzo prometatu nizuenez³⁶ erranen nizuela zergatik eraikiarazi zuen Rolandinaren aitak alaba hain luzaz preso atxiki zuen gaztelua, istorio hori kontatzera noa».

³⁵ Italiarazko atsotitz baten erreferentzia, inondik ere. (I. O.)

³⁶ XXI. istorioaren kontakizunean. (I. O.)

BERROGEIGARREN ISTORIOA

Jossebelin-eko kondearen arrebak, anaiaren ezjakinean esposatu zelarik hark gero hilaraziko zuen zaldun batekin —nahiz eta kondeak usu koinatutzat nahi ukanen zukeen, arreba bezain etxe onekoa izan balitz—, ermita batean iragan zituen bere mendearen hondarreko egunak, pazientzia eta zorrotasun handiz bizituz.

Jossebelineko konde erraten zioten eta Rolandineren aita zen jaun hark zenbait arreba zituen, batzuk aberaski ezkonduak eta bertzeak serora sartuak; eta bazen bat etxean gelditua³⁷, ezkongai, konparazionerik gabe ederragoa zena bertze guziak baino, eta hainbertze maite zuen anaia, ezen hark ez baitzuen ez emazte ez haurrik ere arreba hura baino maiteago. Hala, neska hura ezkontzaz galdegin zuten hainbat etxe onetatik, baina anaiak ez zuen deus ere jakin nahi ukan, arreba urrunduko zitzaion beldur eta bere dirua gehiegi maite zuelako³⁸. Horregatik eman zuen neskak ezkongai bere bizitzaren parte handi bat, arras oneski bizi zela anaiaren etxean, non bazen zaldun gazte eta eder bat³⁹, etxe hartan haurdanik hezia, zeina ordukotz hazia baitzen bai edertasunean eta bai bertutean, eta aise gobernatzen baitzuen bere nagusia; hainbertze, non hark arrebari zernahi igorri nahi ziolarik, betiere zaldunaren bidez bidaltzen baitzion. Eta halako larderia eta etxekotasuna esleitu zizkion, arrebarenganat arrats nahiz goizez igorritz, ezen elkarrekin luzaz egoteaz atxikimendu handia sortu baitzen bien artean. Baina nola gizona, nagusia ofentsatuz gero bizia galtzeko beldur baitzen, eta dama, berriz, ohorea, ez zuten, beren arteko amodio hartan, solasa bertze kontentamendurik hartzen, harik eta Jossebelineko jauna hasi zitzaion arte sarri erraten arrebari kario pagatu beharko zukeela zaldun hura bera bezain etxe onekoa balitz, sekulan ez baitzuen koinatutzat hura baino gehiago estimatuko lukeen gizonik ezagutu. Hainbertzetan erran zuen anaiak ber gauza non, beren artean iharduki ondoren, pentsatu baitzuten ezen elkarrekin ezkontzen baldin baziren aise barkatuko zituztela. Eta Amodiok, zeinak gogotik sinesten baitu beti nahi duen hura, adierazi zien egite hark onik bertzerik ez ziela ekarriko, eta, igurikimen horretan, bete eta gauzatu zuten ezkontza, nehork deus ez zekiela ezpada apez batek eta zenbait emaztek.

Eta senar-emazte ezkonduak elkarrekin ukan ohi duten plazerean zenbait urtez bizi ondoren, giristino herri guziko bikorik ederrena osatuz eta amodiorik handien eta ederrenean, Fortunak, bi pertsona hain lorios ikusirik bekaizkor, ezin jasan ukan zuen eta etsai bat sortu zien, zeinak, anderea barrandatur, haren zorionaz ohartu baitzen, ezkonduarik zegoela jakin gabe. Eta Jossebelineko jaunari jin zitzaion erratera ezen zalduna, zeinaz hain fida baitzen, arduregi joaten zitzaiola arrebari ganberarat, gizonak sartu behar ez duten tenorean joan ere. Ez zion lehen aldian sinetsi, halakoa baitzen arrebaren eta zaldun haren baitan zeukan konfiantza. Baina bertzea behin eta berriz jin zitzaion, etxearen ohorea estimatzen duena nola, eta halako zelata jarri zieten, non gaizo haiek, zeinek ez zuten halako makurkeriarik usnatzen ere, harrapatu egin baitzituzten. Eta hala, arrats batez, Jossebelineko jaunari mezutu zioten zalduna arrebarenean zela, eta berehala joan eta han kausitu zituen gaizo haiek, amodioz

³⁷ Dirudienez, Josebbelineko (Morbihan-eko Josselin, egun) “konde” hori Jean II.a da, Rohan-eko bizkondea; eta ezkongai gelditu zen arreba, berriz, Catherine zen. 1479an bizkondea preso hartu zuten, Keradieux-eko jauna hil zuelako akusaziopean, eta 1484ra arte egon zen kartzelan. (I. O.)

³⁸ Dotea edo ezkonsaria ordaintzea egokituko zitzaion, izan ere. (I. O.)

³⁹ Gorago aipaturiko René de Keradieux, seguruenik, zeina 1478an hil baitzuten. (I. O.)

sutan, elkarrekin etzanik. Hitza ebatsi zion erresuminak, eta, ezpata hartuz, zaldunaren gibeletik atera zen hura hiltzeko asmoz. Baina zaldunak, bizkor baitzegoen, ihes egin zuen atorra hutsean, eta atetik ezin eta leiho batetik egin zuen jauzi baratze baterat. Dama gaixoa, atorra-has, anaiaren aitzin belauniko jarri eta erran zion:

—Jauna, gupidets ezazu ene senarraren bizia, esposatua baitut, eta, laidorik baldin badago, ez ezazu zigor ni ez bertze nehor, zeren egin duena nik galdaturik egin baitu.

Anaiak, hiraz beterik, ez zion ihardetsi, eta erran zion:

—Mila aldiz zure senarra izanagatik, tronpatu nauen zerbitzari gaizto bat bezala zigortuko dut.

Eta hori erranez, leihora atera eta goraki oihuztatu zuen zalduna hil zezaten, eta hala egin zuten zaluki haren manuz, beraren eta arrebaren begien aitzinean. Hura, ezein galdek erremediatu ezin ukan zuen ikuskizun hits haren bistan, bere baitarik kanpo den emazte baten gisan mintzatu zitzaion anaiari:

—Ene anaia, nik ez dut ez aitarik ez amarik, eta, dudan adinean, ene gogara ezkontzen ahal naiz; eta hautatu dut horretarako zuk ardura erran didazuna enekin ezkontzea nahi zenukeela. Ordea, legez zuk baimendu gabe egiten ahal dudana zure aholkuz egiteagatik, munduan gehien estimatu ukan duzun gizona hilarazi duzu! Beraz, eta ene otoiak ezin ukan duenez hura heriotzatik begiratu, arren galdatzen dizut, sekulan ukan didazun maitasun guziaren kariaz, egin nazazun orain berean haren lagun heriotzan, haren mentura orotan izan naizen gisan. Eta horrela, zure hira krudel eta zuzengabe hori betez, jarriko dituzu pausuan hura gabe bizi nahi ez duen eta ezin duen honen gorputz-arimak.

Anaia, biziki hunki eta arrazoia galtzear bazen ere, hain zen urrikaldua arrebaz, non, haren galdeari ez baiezkorik ez ezezkorik eman gabe, han berean utzi eta joan egin baitzen. Eta, zer egin zuen ongi kontsideratu ondoren, eta aditu zuelarik zalduna esposatua zela arrebarekin, halako krimena sekulan obratu ez ukana desiratu zuen. Alabaina, eta arrebak justizia edo mendekua galdatuko zuen beldur, oihan baten erdian gaztelu bat eginarazi eta han sartu zuen, eta harekin nehor mintza zedin debekatu zuen.

Handik denbora batera, eta bere kontzientziako eskrupuluak ematzegatik, arreba berreskuratzerantz entseatu zen eta ezkontzaz mintzatu zitzaion, baina hark igorri zion baten bat erranez ezen hain gosari makurra eman ziola, non ez baitzuen jaki bereko bertze otordurik desira, eta esperantza zuela halako moduan bizitzeko, non ez zedin nehola ere berriz haren senar baten hiltzaile izan; zeren ez baitzuen uste anaia bertze nehor barkatzeko gai izanen zenik, munduan gehien maite zuen gizonari egin zion makurkeria eginik. Eta, bera ahula eta indargabea bazen ere mendekua hartzeko, bazuela esperantza zinezko juje den eta neholako makurrik gaztigurik gabe uzten ez duen Haren baitan, zeinaren amodioan soilik bizi nahi baitzuen jagoitik zuen denbora, ermitau bizitza eginez. Eta hori egin zuen, zeren, hil arte ez baitzen handik mugitu, halako pazientzia eta austeritatean biziz, non hil zelarik jendeak oro harat joaten baitziren emazte saindu batengana bezala. Hura hil ondoren, anaiaren etxeak hondoa jo zuen guziz, halako moduan non haren sei semeetarik ez baitzen bat bera ere gelditu eta guziak hil baitziren miserableki; eta, hondarrean, primantza, bertze istorioan entzun duzuen moduan, Rolandine alabari esleitu zitzaion, zeina izebarendako egin presondegian egon baitzen haren ondoren.

«Jainkoari otoi, ene andereok, etsenplu hau profitagarri dakizuen, eta zuetarik nehor ez dadin ezkon, plazer hutsez, obedientzia zor diegun haien baimendurik gabe; zeren ezkontza hain da iraupen luzeko estatu bat, ezen ez baita arinki hartu behar, gure lagun eta ahaide onenen iritzirik gabe. Eta ongi eginik ere, gaitz da plazer bezainbat neke emanen ez duen gisan egitea».

«Fede onez —erran zuen Oisillek—, neskei zuhur izaten irakatsiko liekeen Jainkorik edo legerik ez balitz, aski da etsenplu hori beren ahaideei behar legez gur egin diezaieten, beren gogara ezkontzen hasi gabe».

«Alabaina, ene anderea —erran zuen Nomerfidek—, urtean egun on bat duena ez da dohakabea bere mende guzian. Dama horrek, bere burua baino maiteago zuen hura ikusi eta harekin luzaz mintzatzeko ditxa ukan zuen, eta, orobat, ezkontzazko gozamina, kontzientzia eskrupulurik gabe. Eta, ene iduriz, hain da handia kontentamendu hori, ezen haren atsekabea baino handiagoa baita».

«Orduan —erran zuen Saffredentek—, erran nahi duzu emazteek senar batekin oheratuz ukaiten duten plazera handiagoa dela hura begien aitzinean hiltzen ikusiz hartzen duten nahigabea baino?».

«Ez duzu hori ene asmoa —erran zuen Nomerfidek—, ez baita hori emazteez dudan esperientzia, baina bai uste dut ezen ezohiko plazer batek, nola baita munduan gehien maite den gizona esposatzea, handiagoa behar duela izan hura hil delako galtzearen nahigabea baino, hori gauza arrunta baita».

«Bai, heriotza naturala izanez gero —erran zuen Geburonek—, baina hura hagitz krudela izan zen, eta nik guziz arrotz edireten dut nolaz ausartu zen gizon hura halako krudelkeria egiterat, ez izanik ez haren aita ez eta haren senarra ere, baizik eta anaia soilik, eta dama egonik neskak legez beren gogara ezkontzera haizu diren adinean».

«Nik ez dut batere arrotz kausitzen —erran zuen Hircanek—, ez baitzuen arreba hil, hainbertze maite zuena eta zeina ez baitzegoen haren justizapean, baizik eta zalduna, zeina bere haur bat balitz bezala hazi eta anaia bezala maite ukan baitzuen; eta hark, jaunak bere zerbitzuan ohoratu eta aberastu zuelarik, arrebarekin ezkondu nahi ukan zuen, eta hori ez zegokion nehola ere».

«Orobat —erran zuen Nomerfidek—, ez da ez arrunta ez ohikoa halako etxe oneko emazte batek zerbitzari duen zaldun bat amodioz esposatzearen plazera. Heriotza estrainioa bada, hala da plazera berria, eta are handiagoa gizon zuhur guzien iritzia kontra duelako, eta fabore, berriz, amodioz bete bihotz baten kontentamendua eta arimaren pausua, Jainkoa ez baitzuten nehola ere laidoztatu. Eta heriotzaz denaz bezainbatean, krudela izan zela baitiozu, iduri zait ezen, beharrezkoa denez, laburrena dela onena, ongi jakina baita iragate hori ekidinezina dela; ordea, nik uste dut dohatsua dela heriotzaren aldirietan luzaz egoten ez dena, mundu honetan dohatsutasuntzat hartzen ahal den dohatsutasun bakarretik betierekoa den hartara zalu hegaldatzen dena».

«Zeri erraten diozu zuk heriotzaren aldiri? —erran zuen Simontaultek».

«Gogo nahigabe anitz dutenak —ihardetsi zuen Nomerfidek—, eta bai luzaz eri egon direnak ere, zeinak, gorputz nahiz izpirituzko samin biziagatik heriotza mespretxatu eta beren ordua luzestera ere heldu baitira, horiengatik diot nik heriotzaren aldirietan barna ibili direla, eta halakoak mintzatzeko zaizkizue, mintzatu, pausuan baino gehiago deitorez oihuka egon izan

direneko ostatuez. Dama horrek ezin ukan zuen ekidin senarra heriotzaz galtzea, baina anaiaren kolerak senarra luzaz eri edo samurturik ikustetik libratu zuen. Eta harekin ukan zuen aisetasuna Gure Jainkoaren zerbitzu bilakatu zuelarik, bere burua guziz dohatsutzat hartzen ahal zuela erranen nuke».

«Eta ez diozu batere kontu egiten pairarazi zioten lotsari eta presondegian egon beharrari —erran zuen Longarinek—?».

«Ene iduriz —erran zuen Nomerfidek—, amodio betean eta Jainkoaren arabera bizi den pertsonak ez du ezagutzen ez lotsarik ez eta desohorerik ere, ez baldin bada amodio hori ahultzen zaionean edo haren perfekzioari huts egiten dionean. Amodio onaren loriak ez du neholako lotsarik ezagutzen, eta, haren gorputzaren presondegiratzeaz denaz bezainbatean, uste dut ezen, Jainkoaren eta senarraren ondoan zuen bihotzean zeukan libertateagatik, ez zuela sentitu ere egiten, eta bakardade hura estimatzen zuela libertate handitzat; zeren maite duen hura ikusi ezin duenak ez du on handiagorik harengan etengabe pentsatzen egotea baino, eta pentsamendua libreki higitzen ahal den presondegi bat ez da sekulan hertsiegia».

«Ez da egia handiagorik Nomerfidek erran duen hori baino —erran zuen Simontaultek—, baina halako hastantze bat furiaz eragiten duenak dohakabetzat ukan behar luke bere burua, zeren Jainkoa, amodioa eta ohorea laidoztatu baitzituen».

«Fede onez erranik —erran zuen Geburonek—, balditurik nago emakumeen amodioen aniztasunaren aitzinean, eta klarki ikusten dut ezen amodio handia duenak bertuteak ere gehiago ukan ohi dituela, eta, aitzitik, hain handia ez duenak disimulatu egiten duela, bertutetsu agertu nahirik».

«Egia da —erran zuen Parlamentek— Jainkoarenganako eta gizonenganako onest den bihotzak amodio handiagoa ukan ohi duela biziotsuak baino, eta ez da beldur izaten dituen asmoetan barnekoena agerian geldi dadin».

«Beti entzun ukan dut —erran zuen Simontaultek— ezen gizonak ez direla gaitzetsi behar emazteen gibeletik ibiltzeagatik, Jainkoak haien bihotzetan amodioa eta galdatzeko ausardia jarri baitu, eta beldurra eta kastitatea emazteenetan, ezetz errateko. Eta gizona zigortua izan bada eman zaizkion ahalak baliatzeagatik, ez da xuxena».

«Baina huts handia da zalduna arrebaren aitzinean hainbertzetan laudatu ukana —erran zuen Longarinek—; eta iduri zait ezen erokeria edo krudelkeria litzatekeela iturtzain batek uraren ederra laudatzea hari beha dagoen egartiari, eta gero, hartu nahi ukan duelarik, eraitea».

«Egia errateko —erran zuen Parlamentek—, anaiaren ele goxo haiek pitzarazi zuten sua, eta ez zuen nehola ere ezpata ukaldiz iraungi behar».

«Harriturik nago ikusiz tzartzat hartzen dela zaldun arrunt bat —erran zuen Saffredentek—, zeinak etxe oneko dama bat esposatu baitzuen gorteatzearen indarrez soilik eta bertze amarrurik gabe, filosofo zuhurrek erraten dutelarik den mendreneko gizonak gehiago balio duela den emazterik prestu eta bertutetsuenak baino⁴⁰».

«Horregatik —erran zuen Dagoucinek—, jendartea bakean atxikitzeagatik, ez zaio behatzen ezpada etxearen graduari, pertsonen adinari eta legeak manatuari, kontuan hartu gabe gizon-emazteen amodioa eta bertuteak, erresuma ez suntsitzeko xedez. Eta hortik dator

⁴⁰ Hala nola Aristotelese, zeinak emakumea izaki imperfektutzat baitu. (I. O.)

ezen kidekoen artean eta ahaide eta gizonen iritzien arabera eginiko ezkontzak sarri hain bertzelako direla bihotzez, gorputz molduraz eta kondizioz, non, salbamendurantz eramane dituen estatu bat hartu orde, infernuaren aldirietan sartzen baitira».

«Orobat ikusi izan da —erran zuen Geburonek— ezen amodioz eginikoetan, bihotzez, kondizioz eta gorputz molduraz idurikoak izanik ere, eta etxeen eta leinuen diferentziari behatu gabe, dolutu behar izan direla, zeren, ardura, diskreziorik gabeko amodio handi horiek jelsia eta haserre bizi bilakatzen baitira».

«Iduri zait —erran zuen Parlamentek— ezen ez direla laudagarriak ez bata eta ez bertzea, baina bai pertsonak Jainkoaren nahikundearen menera jartzea, loriari, diru goseari eta sentsuen gutiziari behatu gabe, eta, amodio bertutetsu eta ahaideek baimendu batez, ezkonbitza Jainkoak eta naturak manatzen duten moduan eraman nahi ukaitea. Eta ez izanagatik ere neholako estaturik atsekaberik gabe, ikusi ukan ditut halakoak dolurik gabe bizitzen; baina hemen gaudenak ez gara hain dohakabeak, ezkondurik gaudenak ez baikara haietarik».

Hircan, Geburon, Simontault eta Saffredentek zin egin zuten halako asmoz zirela ezkonduak berak, eta ez zirela sekulan horregatik dolutu; baina, egia edozein zela ere, zin harekin zerikusia zuten emazteak hain ziren kontent, non, beren gogarako ele hoberik entzunen ez zutelakoan, altxatu eta Jainkoari eskerrak ematerat partitu baitziren, eta han ziren fraideak prest bezperak erraten hasteko. Zerbitzua bururatu zelarik, afaltzerat joan ziren, ez beren ezkontzei buruz behin eta berriz mintzatu gabe halere, zeren horretan aritu baitziren arrats osoan, beren emazteen ezkontza galdez ibiltzean ukan zituzten menturak kontatzen. Baina batak bertzearen solasa etenarazten zuenez, ezinezkoa da beren osoan erratea istorio haiek, zeinak pentzean kontaturikoak bezain atseginak izanen baitziratekeen hemen eskribitzeko. Eta halako plazera ukan zuten eta hain ongi libertitu ziren, ezen oheratzeko tenorea heldu baitzitzaien nehor ohartu aitzin. Oisille andreak taldea desegin eta oheratzera joan ziren guziak, hain alegera, non uste baitut ezkondurik zirenek ez zutela bertzeek bezain luzaz lo eginen, iraganeko amodio kontuak berrituz eta egungoak erakutsiz. Eta horrela iragan zen gaua, baratxe-baratxe, goiza heldu zen arte.

Laugarren egunaren azkena.